


Elgoibar 1936

Zentral elektrikoetako fusilamenduak
Fusilamientos en las centrales eléctricas



Hodei Otegi (Baiona, 1982)

Elgoibar1936 memoria historikoa berreskuratzeko herritarrek sortutako taldeko kidea da. Herrian ahozko testigantzen bitartez gerra zibila bizi izan zutenen bizipenak jasotzen aritu da azken urteotan, Iñaki Odriozola, Izaskun Belategi eta Felix Etxeberria-rekin batera. Egia, justizia eta erreparazioa ardatz hartuta Elgoibarren gertatutako giza eskubideen urraketak azaleratzen dihardu 2007az geroztik.

Miembro del grupo local Elgoibar1936 para la recuperación de la memoria histórica. Desde la creación del grupo en 2007, y junto a Iñaki Odriozola, Izaskun Belategi y Félix Etxeberria, recopila los testimonios orales de personas que padecieron la Guerra Civil en el municipio con el fin de aclarar las vulneraciones de derechos humanos mediante los principios de verdad, justicia y reparación.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

ELGOIBAR 1936

Zentral elektrikoetako fusilamenduak

Fusilamientos en las centrales eléctricas

Elgoibar - 2018



aranzadi
zientzia elkarte

SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES

ELGOIBAR 1936

Egilea - Autor:

Hodei Otegi, Elgoibar1936.

Edizioaren koordinazioa - Coordinador de la edición:

Mikel Edeso eta Juantxo Agirre - Aranzadi Zientzia Elkarte.

Laguntzaileak - Colaboradores:

Elgoibarko Udala, Elgoibar1936, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Argazkiak- Fotografías:

Ojanguren Funtsa - Gipuzkoako Foru Aldundia, Elgoibarko Udala, Erich Andres funtsa, Alberdi familia, Elkoroiribe familia.

Edukiaren zuzenketa:

Karlos Almorza - Aranzadi Zientzia Elkarte.

Juan Casto Alberdiren egunerokoaren moldaketa:

Angel Ugarteburu (euskara), Mikel Edeso (gaztelania).

Maketazioa - Maquetación:

TamTam S.L.

Imprimatzen du - Imprenta:

Leitzaran Grafikak S.L.

ISBN 978-84-17713-01-0


L.G. / D.L. SS 1410-2018

AURKIBIDEA

0 - Hitzaurrea	7
1 - Testuingurua. Elgoibarko Frontea	11
2 - Aurrekariak. Elgoibar errepublikaren garaian eta gerra zibila hasi zen arte	15
3 - Emakumeen egoera gerraren testuinguruan	19
3.1. Emakumearen boto-emate eskubidea	20
3.2. Emakumeen mugimenduak Elgoibarren	21
3.3. Errepresioa jasan zuten emakumeak	22
4 - Elgoibarko fusilamenduak: argia ikusi ez duen historia ahaztezina	27
4.1. Bi familiaren sufrimendua	28
4.2. Erailketak	32
5 - Juan Casto Alberdi Agirregomezkortaren lekukotasuna. Gerrateko ibilerak	37
6 - Eranskinak	55
I. ERANSKINA. Epaiketa “ <i>Sumarisimoa</i> ”: itaunketak	56
II. ERANSKINA. Epaiketa ulertzeko datu historiografikoak	58
III. ERANSKINA. Jeronima eta Maria Alberdi Arrietaren Manuel anaiak, 1942ko urrian “Revision de Penas”-en aurkeztutako gutuna	59
IV. ERANSKINA. Gaur egun bizi diren oinordekoen testigantzak	60
7 - Bibliografia / Bibliografía	67

HITZAURREA

O



HITZAURREA

Elgoibar1936 elkarte helburu garbi batekin sortu zen 2007an, Elgoibarren, 1936ko altxamendu faxistak, eta eragin zuen gerrak, izan zuen eragina -ahazturik dagoena- ateratzea, eta galtzaileen oroitzapena gizarteratzea, egia, justizia eta erreparazioa eskatuz, alegia.

Hau lortzeko bidean, hainbat arlotan egin izan dugu lan, alde batetik artxibategiak behatu, aztertu; bestetik herritarren esanak jaso, euren sufrimendua, gorriak eta bi pasa zituztenen testigantza jaso, eta abar.

Nahi izan duguna zera da, gertatutakoari buruzko zapalduen ikuspuntua jaso, eta oro har, herrian izan diren borrokak eta gertaerak identifikatuz historia berreraiki, ahal den neurrian, faxisten sarraskiak eta astakeriak azaleratuz, herriaren eta herritarren aurka hartu zituzten erabakiak ageriaraziz, mendekuak, konfiskazioak, atxilotetak, hilketak gogoratuz, eta frankismoan eratu zuten gizarte atzerakoi eta beltza salatuz.

Datu guztiak jasotzen aritu garen bitartean, mendian eta bide bazterretan ibili izan gara, faxistek utzi zituzten lurperatuak kokatu, zehazki seinalatu eta, ahal izanez gero, ehorzketak egiten, hildakoak euren senideen esku jartzeko, euren eskubidea den lez.

Beste ildo batzuk ere landu ditugu; esaterako, ikur frankisten kentzea aldarrikatu eta salatu. Oroitzapen Historikoaren legearen aplikazioa udalari eskatu, eta Jaurilaritzaren ikerketan parte hartu, Elgoibarko ikur frankisten zerrendatze lanetan, oraindik ere kendu gabe daudenak.

Hainbat hitzaldi ere egin izan ditugu: antifaxista alemanekin, Sabino Arana Fundazioan, Andoaingo omenaldian edo herriko gazteei, Gaztetxean; Estatuko instituzioek ezkutuan izan duten garai beltz hau argitzeko.

Erakusketak antolatzen aritu gara, urtez urte, irailaren 21eko gure egun madarikatuan, Zirardamendiko "Goazen gudari danok", edo "Izarren Argia", edo Aranzadi antolatutakoa, hobi-komunei buruzkoa; eta azkenik, 2018an, "Emeek emana" erakusketa izugarria ere ekarri dugu gurerara.

Herritarren parte hartzearekin eta Taupada antzerki taldearen zuzendaritzapean egindako herri hartzearen errekreazioa eta dokumentala izan da, agian, egin dugun ekitaldi handiena, baina galtzaile horiei begira ere egiten ari gara, eta arituko gara oraindik, gure erreparazio xumea eskaini nahian, jendartearen besarkada eta babesa adierazteko.

Azken aldian, eta liburu hau da horren adierazle, daukagun informazio guztia txukundu eta egituratzen hasi gara, eta benetan asko daukagula: elkarrizketa idatziak eta bideoak, artxibategietako orriak, egunkarietako berriak, udaleko aktak, Salamancako paperak, Aranzadi Zientzia Elkartetik ekarritakoak, Euskal Memoriarenak, hainbat liburuetatik ateratakoak, senideek urteetan ezkutuan gordetako gutunak... denetatik.

Nonbaitetik hasi behar eta, Hodei Otegi gure kideari esker, bera baita lan handi hau bere gain hartu duena, Elgoibarren fusilatutakoetatik hasi gara. Ea hemendik aurrera horrelako dokumentu argitzaile gehiago ateratzen dugun, jendarteak irakur ditzan eta oroitzapenean betirako gera daitezen, botereak baztertu eta ahaztu nahi izan dituenak. Egiari zor. Justiziari zor. Erreparazioari zor diogulako.

TESTUINGURUA: Elgoibarko Frontea

1

Matxinatutako soldadua Morkaiko mendiari begira Elgoibarko irteeran" 1936ko iraila.

1. TESTUINGURUA: ELGOIBARKO FRONTEA

"Cerca de Elgoibar subí a un coche que se dirigía a San Lorenzo dejando la carretera de Azkoitia. Esa parte del frente estaba muy movida y convenía saber su situación. Iban en él ocho milicianos que se incorporaban a las líneas montañosas procedentes de Durango..."

MANUEL CHIAPUSO

1936ko iraila. Nazionalen tropek ia oposizioz gabe aurrera egiten dute Gipuzkoan; herrietan defentsa gutxi antolatzen da eta Donostiaren erorketatik milizianoak atzeraka doaz erretiradan. Aurreko egunetan, herrietako jendea, zuten gauza apurrarekin, Bizkaiko herrietara joaten da, ahal zuten baliabide guztiekin ihesari ekiten diote, Elgoibarko 614 pertsonak ihes egin zuten, herriaren ehuneko 10ak.

Elgoibarko herriak autobus eta tren bete-beteak zituen; batez ere emakume eta haurrez beteriko trenak ziren, faxisten bonbardaketetatik ihesean zihoazenak. Berriak azkar iristen dira jendearen-gana, eta laster jakingo dute Azkoitia faxisten eskuetan dagoela, irailaren 20an, beldurra nabaria da. Frente Popularreko kideek egunetan prestatu dituzte lubakiak Azkaraten, eta defentsa posizioak inprobisatzen dituzte. Milizianoek, Madarixako ermitan posizioak hartu dituzte, baita Untzonek herria Azkarate gainarekin konektatzen duten bideetan ere. Milizianoek burutu zituzten lan hauek, beti ere autoritate moral altuena zuen komandantearen agindupean. Formazio militarrik gabeko milizianoak ziren. Aldazabal baserriaren aurrealdean leherketa bat egiten dute milizianoek, Diez de Riveraren tropak geldiarazi nahian. Honako hauek osatzen zuten Diez de Riveraren columna: Tercio de Lacar, Tercio de Lesaka, Ingeniarien bi konpainia, Sicilia 8 batailoia, falangeko *centuria* bat eta lau blindatu. Milizianoek ahaleginak egin zituzten hauek geldiarazteko. Irailaren 21 goizaldean hasten da enfrentamendua; miliziano batzuk gudan erortzen dira, ez dira bakarrak, karlisten artean ere bada hildakoak. Eibarrera ihes egiteko aukera dute miliziano batzuek eta asko izan ziren Ballagoitxi eta Olazarran ezkutatu zirenak. Arratsaldeko seietan sartzen dira tropa faxistak Elgoibarren. Elgoibar faxisten plaza militarra bilakatzen da, etxeak okupatu eta Elgoibartarrak behartu egin zituzten beraien etxe eta baserriaren soldaduak hartzera. Hurrengo egunetan kolpista gehiago iritsi ziren, gero eta militar gehiago daude herrian. Molaren aginduak argiak dira, milizianoen toki ahulenak aurkitu Bizkaia eta Eibar hartzeko. Elgoibarko toki altuenak hartzen hasten dira: Karakate, Garatemendi, Armueta gaina... Blindatuak eta kanoiak Santa Clarako komentuen ondoan ezartzen dituzte. Morkaiko da beraien helburua. Pablo Cayuela teniente koronela Altzolara bidean da eta mendigoizaleek posizioak hartu dituzte bertan.

Nafarroako Montejurra tertzioa Azkoititik atera eta Hirukurutzetara hurbiltzen da. Lubaki atzean milizianoek ezin diote faxisten erasoari aurre egin. Atxolin mendian behera doaz Sorluzera eta 23an okupatuko dute Sorluzeko faxistek. Horrela hasiko dute Karakate hartzeko bidea, 24 arratsaldean lortuko dutelarik.

Irailaren 25a da Molak ofentsiba handia egiteko izendatuta daukan eguna. Frankisten tropak gehiago eta hobeto prestatuak dira guda latza eta gogorra gertatzen da. Miliziano asko atxilotu eta fusilatuak izan ziren erreketen eskuetan erori eta gero. Kolpisten abiada bizia geldituz doa hemendik aurrera. Milizianoen defentsa frontea Moru, San Pedro, Morkaiko, San Migel eta Bioin baserria dira.

Miliziano konpainia ugari daude defentsa-lerroan: Gipuzkoako CNTko anarkistak Barakaldo batailoia, Arana Goiri EAJko batailoia, Azaña Izquierda Republicana-ko miliziak eta asaltoko goardia, besteak beste. Ez dute lubaki edo posizio argirik; frankistak nagusituko direla nabarmentzen da. Bizkaia aldera blindatuak aurrera doazen bitartean, artilleriak lagunduta, Morkaiko edo "Monte Conico" (Beraiek deitzen zuten modua) hartzeko bidean dira; leku estrategikoa dela badakite, Eibar okupatzea baita bidea. Eraso hauetan, milizianoek irailaren 27an hil zuten Carlos de Borbon y Orleans alferreza; hauek izan ziren guda odoltsuenak, momentu gogorrenak. San Pedro eta Morkaiko hartu ostean, Kalamua izan zen milizianoen defentsa-gunea. Aste horretan jaio zen Eusko Gudarostea, EAJk aktiboki gudan parte hartuko zuela erabaki ondoren. Frontea egonkortzearen momentuan gaude. Arrate, Kalamua eta Akondian izango dira gudak hurrengo zazpi hilabeteetan zehar.

JOSERRA SOUSA LEBANIEGOS



Elgoibar frankistek hartuta. (Argazkiak: Erich Andres funtsa).

AURREKARIAK.
Elgoibar bigarren
errepublikaren garaian
eta Gerra Zibila
hasi zen arte

2

2. AURREKARIAK. ELGOIBAR BIGARREN ERREPUBLIKAREN GARAIAK ETA GERRA ZIBILA HASI ZEN ARTE

Errepublika garaia, askatasun garaia bezala gogoratzen dute elkarrizketatu diren pertsona guztiek: manifestazioak, langile mugimenduak, askatasuna... Elizaren aurkako mugimendua ere handia zela diote, maiatzaren 1ean, langile egunean egiten ziren manifestazioetan edo apirilaren 14an Errepublika egunean, Elgoibarko bandak, errepublikaren aldeko abestiak jotzen zituen; *“Si los curas y frailes superan la paliza que les van a dar, subirán al coro cantando, Libertad, libertad, libertad!”*, Kalegoen plazara iritsi eta elizatik ateratzen zirenei: *“¡Abajo el Clero!”* oihukatzen zieten manifestariak. Manifestazioa eta gero dantzak egoten ziren Kalegoen plazan, gaueko hamaikak arte.

Elgoibarko udaletxean, Balanzategi Altzolatarra zen alkatea, Partido Agrario alderdiko kidea, alderdi eskuindarra eta espainiarra zen. Hala ere, Errepublika onartu eta bera jarri zuten alkate, nahiz eta sekula ez zuen ezarri ez bandera errepublikarrik ez ikurrinarrik².

Langileen artean langabezia handia zegoen eta diru-bilketak egiten zituzten langile horientzat, jatekoa edukitzeko eta diru pixka bat batzen zuten herritar guztien artean.

1933ko azaroaren 5ean, Elgoibarko herriak Autonomiaren aldeko bozkan parte hartu zuen, emakumeak barne lehen aldiz. 2850 pertsonak zuten bozkatzeko eskubidea, 2708k aldeko bozka eta 17 aurkakoa eman zutelarik.

1936ko uztailaren 18ko altxamendua iristean, ez zen bestelako arazorik egon Elgoibarren; 1936ko irailaren 21era arte ez ziren frankistak sartu. 614 pertsonak, Elgoibarko herriaren %10ak ihesari eman zion egun bat lehenago, eta asko izan ziren gudari eta miliziano joan zirenak³.

Etxeetatik joan zirenek, euren ondasun guztiak galdu zituzten, sakeoak gertatu ziren eta lekukoen arabera, sakeo horiek aurrera eramanez zituztenen artean zegoen Santiago Arrese, erreketen sarjentu izendatu zutena frankistek sarreran; bera joaten omen zen goardia zibil, erreketek eta falangistekin etxeak miatu eta gauzak lapurtzera, herritarren dendak konfiskatzera ere; horrela, ordura artean Batzokia zena, Falangeko egoitza bihurtu zuten⁴. Erreketek herritarren etxeetan sartu zituzten, milaka soldadu Elgoibarko etxeetan; batzuk frontean zebiltzan eta besteak, erreleboa noiz emango zain.

Gudari joan zirenen emazteak, etxeetan gelditu ziren asko, haurrekin, eta 1937ko otsailean, 63 haur eta emakume kanporatu zituzten Mendaro, Elgoibar eta Altzolatik. Lehenago, erreketen sarjentua eta falangistak, beraien etxeetan aurkeztu ziren, udaletxetik pasa behar zutela esanez. Udaletxean, alkate ezarri berriak, Francisco Javier Ansuategui Alday falangista elgoibartarrak, beraien senarrak non zeuden galdetu zien banan-banan; ez baziren bertan aurkezten, herritik botako zituztela esan zien eta horrela egin ere.

¹ Julen Iriondo Bergaretxeren testigantza (Ahotsak).


² Elgoibarko Udaleko akta liburua.

³ Salamancako artxibategia.

⁴ Elgoibar 1936k jasotako testigantzak.

Hau da emakume eta haur kaleratuen zerrenda:

Higinia Agirrezabala, Joseba Argarate Unzilla, Sabin Argarate Unzilla, Iker Argarate Unzilla, Xabier Argarate Unzilla, Candida Arregi, Jesusa Arrien Bilbao, Maria Koro Arrizabalaga, Santos Arriola Iriondo, Angeles Azkue, Jaime Azpiazu, Fernando Azpiazu, Jose Luis Azpiazu Etxebarria, Benita Bernedo, Gregoria Barrenetxea Areta, Belen Barrutia Urreta, Consuelo Barrutia Urreta, Esther Barrutia Urreta, Amalia Barrutia Beitia, Juana Barrenetxea Areta, Dominga Cendoya, Alberta Etxaniz Arrieta, Magdalena Etxebarria Arrillaga, Maria Etxebarria Arrillaga, Angelita Etxebarria Arrillaga, Eduardo Elortza, Jose Maria Elortza, Jesus Elorza Zabaleta, Teresa Etxabe Arrona, Clara Etxebarria Arrillaga, Justa Garate Zelaia, Karmele Gabilondo, Juana Gisasola Alberdi, Antonio Irigoien, Josefa Iriondo Bergaretxe, Manuel Iriondo Etxabe, Dolores Iriondo Etxabe, Jose Iriondo Etxabe, Miguel Iriondo Etxabe, Antonia Iriondo Etxabe, Manuel Iriondo Barrenetxea, Antonio Iriondo Barrenetxea, Maria Iriondo Barrenetxea, Jel Iriondo Barrenetxea, Libe Iriondo Mugertza, Maria Iriondo Txurruka, Maria Jauregi, Paulina Jubita, Maria Landa Iriondo, Miren Landaluze Ortiz, Juanita Landaluze Ortiz, Dominga Lariz, Elezar Lonbide Barrenetxea, Nerea Lonbide Barrenetxea, Xeber Lonbide Barrenetxea, Joxepa Manzisidor Aristi, Joxepiñaxi Manzisidor Aristi, Trinidad Matas Koro, Maria Teresa Matas Koro, Beatriz Martinez Gomez, Paquita Mardaras Areta, Irene Okamika, Leonor Olaizola, Isidora Ondarza Gorriti, Maria Angeles Ondarza Martinez, Aurora Ozkorta Zabala, Pura Salaberria, Teresa Unzilla, Teresa Unzeta, Felisa Unzueta Arriola, Catalina Urtaza Salaberria, Concepcion Uribetxeberria, Rufina Urreta Garate, Blanki Urreta, Fernando Urreta, Josefa Urreta Garate, Teresa Unzilla, Pepita Zabala Arriola, Eugenia Zubiaurre Zabala eta Jesus Elortza Zubiaurre⁵.




Kanporatuak izan ziren umeak gaur egun. Behean, gerra garaiko argazkia. (Argazkia: Barren).

⁵ Sabino Arana Fundazioa, 'Euzkadi' eta 'Eusko Deya' egunkariak eta Elgoibar1936 taldea.

EMAKUMEEN EGOERA GERRAREN TESTUINGURUAN

3



3. EMAKUMEEN EGOERA GERRAREN TESTUINGURUAN

“La única misión que tienen asignadas las mujeres en la tarea de la Patria es el hogar”

FALANGE

3.1. Emakumearen boto-emate eskubidea

1931ko apirilaren 14an bigarren errepublikaren aldekoek espainiar hauteskundeak irabazita, bigarren errepublika ezartzen denean, berdintasunak bere lekua hartzen du estatu espainiarrean.

Tirabirak izan baziren ere, Clara Campoamor “Partido Radical Socialista”-ko kidearen protesten ondoren, konstituzio errepublikar espainiarrean honako puntu hau gehitu zuten:

“No podrán ser fundamento de privilegio jurídico: la naturaleza, la filiación, el sexo, la clase social, la riqueza, las ideas políticas, ni las creencias religiosas. El Estado no reconoce distinciones o títulos nobiliarios. (art. 25)”⁶

Bikoteen arteko banaketa ere onartua izan zen. Italiar eta Espainiar estatuak hau onartu zuten lehenak izan ziren European. Askatasun haizea zebilen espainiar estatuan, Euskal Herriarekiko jarrera ez zen gehiegi aldatu, ordea; independentisten eta abertzaleen aurkako jarrera zabaldu zuen errepublika espainiarrak, Katalunian eta Euskal Herrian, lider politikoen atxiloketak gertatzen ziren sarri.

Emakumeen bozkatzeko eskubidea ez zen egun batetik bestera lortu. Hasiera batean, bakarrik bizi ziren emakumei eman nahi izan zieten bozkatzeko eskubidea. Errepublikarrek beldurra zeukaten, emakumeak elizarekiko zuen harreman estuak, emakumeen bozka errepublikaren aurkakoa izatera bultzatuko zuela, hau da, emakumeen gehiengoak eskumari emango ziola bere bozka.

Emakumeek 45 urtetik aurrera bozkatzeko proposamena ere egin zuen Hilario Ayusok, emakumeek adin hartatik aurrera hasten zirelako pentsatzen bere esanetan. Clara Campoamorrekin (Partido Republicano Radical), emakumeentzako bozka eskatzen zuen eta Victoria Kent-ek (Partido Republicano Radical Socialista) ez zuen emakumeen bozkatzeko eskubidearen alde egin. Manuel Azaña (Izquierda Republicana) presidenteak ordea, barregarritzat jo zuen eztabaida hura; “Bi diputatu emakume daudenean ados jartzen ez badira, imajinatzen duzu 50 emakume daudenean?”⁷.

Tirabira handiak egon ziren, ezkerrean erdibitu zuen eztabaidak eta Indalecio Prietok (PSOE), emakumeen bozkatzeko eskubidearen legea onartu zenean, errepublikaren aurkako erasotzat jo zuen, emakumeek eskumari bozka emango ziotelakoan.

1931ko abenduan onartu zen emakumeen bozka eskubideen legea, 1933ko azaroaren 5ean lehen aldiz Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako emakumeek bozkatzeko aukera izan zuten. Euskal Autonomiaren inguruko erreferendumean izan zen; diotenez, emakume guztiak joan ziren bozkatzera eta bozka eman zutenen %84ak autonomiaren aldeko bozka eman zuen. Nafarrek ez zuten bozkatzeko aukerarik izan, Nafarroako udaletxeen gehiengo sinpleak erreferenduma egitearen aurka bozkatu ostean; %53,7-a ziren.

⁶ Publicación Almendron, La mujer en la República (1931-1936)

⁷ Publicación Almendron, La mujer en la República (1931-1936)

1933ko hauteskundeetan parte hartu zuten lehen aldiz emakumeek espainiar estatuan, eta eskuinak irabazi zituen hauteskunde horiek. Alderdi errepublikarretako kideek, emakumeei bota zieten horren errua.

1936ko estatu kolpea eta gero, 1939an, lorpen hauek guztiak galduta geratu ziren 40 urte luzez. Europako herri aurreratuenetakoa izatetik, atzeratuenetakoa izatera pasa zen espainiar estatua.

3.2. Emakumeen Mugimenduak Elgoibarren

Beste hainbat udalerrietan bezala, Elgoibarko emakumeak antolakuntza politikoa izan zuten eta honen ondorioz erailketak, isunak, errepresioa, kartzela eta erbestea ere jasan zuten.

EMAKUME ABERTZALE BATZA

1931n berragertu zen EAB, berezko autonomia lortu eta Hego Euskal Herri osora zabaldu zen. “Jaun-goikoa eta Lagi-Zarra” (JEL) eta euskara zituzten helburu; gizonezkoek gidaturiko lanaren menpeko ikusten zuten beren egitekoa. Irakaskuntza eta heziketa alorrean egindako lanaz gain (ikastola eta haurtzaindegietan, bereziki), propaganda eta gizarte-arazoak arintzen saiatu ziren. Jarduera honen emaitza, eta Juventud Vasca-rekin (EGI) batera, Euzko Irakasle Batza eta Euzko Ikastola Batza sortu ziren 1932an.

Elkartearen indarra eta eragina handia zenean, Espainiako Gerra Zibila piztu zen eta frankistek gogor zapaldu zituzten. Gerra ondoren, asko erbesteratu egin ziren eta euskal errefuxiatuei eman beharreko laguntza prestatu zuten.

EABko kide nabarmenenak Karmele Errazti, Polixene Trabudua, Haydée Agirre, Sorne Unzueta, Robustiana Mujika Egaña eta Elbira Zipitria izan ziren.

Jarraian Elgoibarko EABko kideak:

1931-11-15ko Batzarrean erabakia

Kandida Arregi [Lehendakaria](#)
Margari Muguruza
Florentina Muxika [Idazkaria](#)
Gloria Gabilondo [Diruzaina](#)
Erremide Bereziartua [Batzordekidea](#)
Miren Nekane Ziaran [Batzordekidea](#)

Zabalkunde Batzakuak

Jone Andonegi [Lehendakaria](#)
Imanole Zubizarreta [Batzordekidea](#)
Miren Larreategi [Batzordekidea](#)

Kistar-Ikasbide-Batza

Polentine Leiaristi [Lehendakaria](#)
Agurne Bereziartua [Batzordekidea](#)
Erramone Egiguren [Batzordekidea](#)

Jantzitegi-Ropero-Batzakuak

Valentina Zendoia [Lehendakaria](#)
Andere Gabilondo [Batzordekidea](#)
Josebe Isasmendi [Batzordekidea](#)

1932-11-12 Batzarra

Miren Juaristi “Mirentxu” ([Euskal Idazlea](#)) [Lehendakaria](#)
Jone Andonegi [Idazkaria](#)
Kepe Juaristi [Diruzaina](#)
Berane Bereziartua [Lehendakariordea](#)
Andere Arriola [Lehendakariorde](#)

1935-05-31 Batzarra

Nekane Barrutia [Idazkariaren hutsunea betetzeko hauek hautatu dituzte:](#)
Miren Larreategi [Idazkaria](#)
Argi Abaskal [Idazkariordea](#)
Miren Arozena [Diruzaina](#)

EABko Gastetxu Batza

Miren Vallejo [Lehendakaria](#)
Pilar Garate [Idazkaria](#)
Begoña Latxa [Diruzaina](#)⁸

⁸ Sabino Arana Fundazioa: “Euzkadi”

Baziren Alderdi Komunistako kide emakumeak Elgoibarren ere, Socorro Rojo Internacional, URRSeko elkartean afiliatuak zirenak, CNTko afiliatuak ere, Josefina Anguera Barrutia kasu, Elgoibarren oso militante eta borrokalaria zena.

“Agrupación Republicana de Elgoibar” taldean ere presente egon ziren emakume elgoibartarrak: Cristina Muguerza, Sebastiania Otegi eta Angelita Lizarralde kasu.

Emakumeen aurkako errepresioa izugarria izan zen Elgoibarren, Euskal Herri osoan bezala. Askok izan ziren beraien lanetatik kaleratuak, beste asko espetxeratuak, kontzentrazio esparruetan sartuak. Fusilatze arriskuan ere egon ziren Jeronima eta Maria Alberdi ahizpak, azken unean haurdun zeudela esanez, bizitzari eutsi zioten.

3.3. Errepresioa jasan zuten emakumeak

ERAILDAKO EMAKUME ELGOIBARTARRAK

IZENA	ERAILKETAREN ZERGATIA
Agustina Irigoien Manzisidor	3 urte zituen. Errosario kaleko hasieran, kultur etxetik hurbil bizi zen. Tropa frankistak herrian sartu zirenean, haien kamioi batek etxe aurrean zapalduta hil zen 1936ko irailaren 22an heriotza agiriaren arabera. Esan beharra dago, bere aita gudari joana zegoela eta otsailean bere ama eta anaia Elgoibarretik kanporatuak izan zirela.
Josefa Arrillaga Arrizabalaga	Elgoibarren jaioa eta 1937ko martxoaren 30ean erreketek hil zuten Soraluzen, Aldasoro Baserrian. Soraluzen bizi zen eta 48 urte zituen. Bere izena eman nahi izan ez duen testigu baten arabera ezkontuta joan zen Soraluzera bizitzera, senarra bertakoa baitzen (Pedro Aldazabal Urreategi). Legarda inguruan zeuden erreketek, nafarrak, irailaren 22an sartu ziren Soraluzen, Bergaratik zetozen. Erreketek edozerri botatzen zioten tiroa, txakurra ateratzen bazen tiroa, oiloa bazen tiroa... “probamos la puntería” “yo la tengo mejor” eta halakoak esaten zioten elkarri, eta Josefa leihora atera zenean, tiro egin eta bertan hil zuten, goizean, esnea leihora ateratzen ari zen momentuan. Jolasa zen beraientzat. Josefa hil eta gero, “iremos a donde la hija a dar el pésame” esan omen zuten tirokatu zuten berberak, eta bertako herritar batek hau esan zien; “¿matáis a la madre y le vais a dar el pésame? ¿estáis locos?” Sekulako ekintza burutu balute bezala kontatzen zuten hau dena herrian ⁹ .
Marina Abascal Gabilondo	Gernikako bonbardaketan hil zuten, 1937ko apirilaren 26an (Gautegiz-Arteaga).

⁹ Familiaren testigantza, Elgoibar1936.

IZENA	ERAILKETAREN ZERGATIA
Teodora Unzueta Unzueta	Durangoko bonbardaketan hil zuten Elizan zegoe-la, 1937ko martxoaren 3lean hila, 41 urte zituela.
Purificación Iturzaeta Galtzakorta	Aizarnazabalen jaioa eta Elgoibarren bizi zen, 50 urte. Etxe aurrean harrapatu zuen bonba batek baratzean, "bonba galdua" omen zen, frontetik "ihes" egindako bonba.
Josefa "La Extremeña"	1937ko otsailaren 7an Kalamuatik botatako kanoikada baten ondorioz hila. Extremeña ezize-nez ezagutzen zuten emakumea.
Mikaela Lete	1937ko otsailaren 7an Kalamuatik botatako kanoikadak hila. San Frantzisko kaleko zerkan, erreka aldera, korta moduko bat zuten, eta bon-betatik ihesi hara joaten ziren babestera. Hantxe harrapatu zuen bete-betean bonba batek.

ERATZUKIZUN POLITIKOAGATIK ERREPRESALIA TUTAKO EMAKUMEAK

IZENA	ISUNA	ISUNAREN ZERGATIA
Maria Arocena Unzueta	150 pezetako isuna ezarri zio-ten 1940ko irailaren 4ean.	Emakume Abertzaleen Batza-ko zuzendaritzaren kidea (PNVko emakumeak) zen, idazkaria. Tropa faxistak sartzean, arropak josten zizkien dohainik, behartuta.
Kandida Arregi	2000 pezetako isuna.	Emakume Abertzaleen Batza-ko kidea zen.
Maxima Izeta	2000 pezetako isuna.	Emakume Abertzaleen Batza-ko lehendakaria.
Teresa Barrenechea Bernedo	Ez da daturik aurkitu.	Erantzukizun politikoa egotzi zitzaion.
Francisca Banca Rodriguez		
Asunción Etxaniz Arrieta		
Maria Elorza Arano		
Antonia Ojanguren Gandarias		
Irene Ormaetxea Urizabarrena		

KONTZENTRAZIO ESPARRU ETA ESPETXEETAN EGONDAKOAK

IZENA	ESPETXERATZE LEKUA ETA DATAK	ATXILOKETAREN ZERGATIA
Maria eta Jeronima Alberdi	3 urtez Ondarretan eta beste 3 bat urte Saturraranen.	1936ko abenduaren 26an fusilatu behar zituzten, Maria eta Jeronima Alberdi ahizpak; azkenean, haurdun zeudela eta, espetxeratuak izan ziren.

IZENA	ESPETXERATZE LEKUA ETA DATAK	ATXILOKETAREN ZERGATIA
Josefina Anguera Barrutia Maria Luisa Garrido	Argelès sur Mer (Frantzia), 1937tik 1940 ingurura arte.	Josefina CNTko afiliatua zen, oso aktiboa Elgoibarrren. Bere alaba adoptatua zen Maria Luisarekin Bartzelonara joan ziren ihesi. Gero, handik Terrassa, Perpignan, Marseilla, Toulouse eta azkenean, Parisera joan ziren. Josefina lanean hasi zen Citroen kotxeen fabrika batean. Hango jabeak, faxista omen, Kamioi batean sartu zituen eta Kontzentrazio eremura bidali.
Pilar Arregi Garate	Argelès sur Mer-en atxilotua.	UGTko afiliatua, zerbitzaria.
Aniceta Garate Echaniz	2 urte Saturrarango espetxean.	1906. urtean jaioa Elgoibarrren. Etxeko andrea.
Miren Joaristi “Mirentxu”	15 bat egun espetxeratua izan zen, Donostia edo Tolosan.	EABko bazkidea. Euzkadi egunkarian idazten zuen, “Mirentxin” ezizenaz sinatuta. Espetxetik bueltan argalduta itzuli omen zen Elgoibarre-ra, itxura txarrarekin, gaizki pasatu zuela zirudien.
Josefa Osoro Mendikute	Frantziako kontzentrazio eremu batean.	
Julita Gorrotxategi Osoro	Frantziako kontzentrazio eremu batean.	
Maria Luisa Gorrotxategi Osoro	Frantziako kontzentrazio eremu batean.	

BERAIEN LANPOSTUETATIK KALERATUAK IZAN ZIREN EMAKUMEAK

IZENA	OGIBIDEA
Antonia Ojanguren Gandarias	San Migeleko Aiastiako udal eskola andereñoa, Don Ceferino Urres-tarazu parrokoak salatu zuen “Roja y Separatista” zela esanez ¹⁰ .
Priscila Pinedo Arza	Frankistek depuratu zuten eta gero moja sartu zen. Miren Vallejori esaten zion: “Sabes Miren que no hablas bien el castellano”.
Francisca Cincunegui Eco	Andereñoa.
Martiana Del Val San Juan	Andereñoa.
Adelaida Lopez Galarraga	Andereñoa.
Hilaria Irazabal Burpide	Altzolako Andereñoa.

¹⁰ Elgoibarko Udaleko akta liburua

ISUNA ORDAINDUTA LANERA ITZULI ZIREN EMAKUMEAK

IZENA	GERTAERA
Natalia Arrien Bilbao	Udal auzoko maistra, berriro lanpostuan onartua eta hilabetez soldatarik gabe zigortua.
Saturnina Ciaran Lizarriturri	Ume txikien udaleko eskola-maistra, berriro lanpostuan onartua eta hilabetez soldatarik gabe zigortua.
Cristina García Iturrioz	Udal auzoko maistra, berriro lanpostuan onartua eta hilabetez soldatarik gabe zigortua ¹¹ .

FRANKISTEK ZITUZTEN ONDASUNAK KENDU ZIZKIETEN EMAKUMEAK

Juana Aguirrebeña Iturricastillo
Josefa Arbilaga Leturiondo

¹¹ Elgoibarko Udaleko akta liburua

ELGOIBARKO
FUSILAMENDUAK:
Argia ikusi ez duen
historia ahaztezina

4

4. ELGOIBARKO FUSILAMENDUAK: ARGIA IKUSI EZ DUEN HISTORIA AHAZTEZINA

4.1. Bi familien sufrimendua

1885 urtean, Espainiako gorteen lege baten ondorioz, instalazio elektrikoak beharrezkoak zirela onartu zuten, eta 3 urte geroago, 1888an, “Real Orden” baten bidez, Antzokien argitzea elektrizitatearen bidezkoa izatea erregulatu zuten, gas bidezko argizatzea debekatuz eta olio lanparen argizatzea larrialdi kasuetarako onartzuz.

1891 urte inguruan hasi ziren elektrizitatea sartzen Euskal Herriko herrietan, eta Elgoibarren ere hala izan zen 1893 urtean; *Elektroindarraren herri-erabilera 1893ko San Bartolome egunean inauguratu zen*¹².

Energia hidroelektrikoaren bitartez hasi ziren lehen pausuak Elgoibarren, bertan ordura arte zeuden errotak kendu edo moldatu eta horrela Elgoibar zentralizatu zen, Deba ibaiaren ura aprobetxatuz.

Horrela jaso zuen “Madrid Científico - Ciencia e Industria” argitalpenak 1904. urtean:

“Se ha autorizado a D. José Agustín Arbillaga para construir dos fábricas de electricidad con canales de conducción de aguas, que afectan al ferrocarril de Malgaza a Elgoibar, en los kilómetros 21 y 22. (Olasope eta Barrena)”¹³.

Horrela hasi ziren Berdun, San Lorentzon kokatzen den baserrian ur depositutik hodi baten bidez ura jaitsi eta energia sortzen. Hor etorri ziren Laupao, Barrena, Olasope, Saturixo... zentral hidroelektrikoak Elgoibarrera, jende partikularrak zentral hauek zabaldu eta udalarekin adostasun batera iritsi ostean (kexak tarteko), energia hori udalari salduaz, Elgoibarko herriak elektrizitatea ezagutu zuen; Santiago Barrutiak, Goikoerrotakoak, ordezkatzeko Elorza, Arbillaga eta konpainia enpresari adjudikatu zion Udalak behin-betiko ustiakuntza aurreko urteko urrian, eta hitzarmena, berriz, 1893ko abenduaren 26an egin zen¹⁴.

ERDIKO BARRENAKO FAMILIA

Jose Alberdi Etxaniz, Azkoitia jaioa eta Elgoibarko Barrena Zentraleko enkargatua zen. Bere aita azkoitiarra zen eta Zumarragara doan bidean zuen baserria. Jose Eibarren ere, Txonta kalean, ikatza erabilia zentral elektriko baten arduraduna izan zen. Horren pabilioi zaharra oraindik ikusi daiteke. Eibarko batzuk gogoratzen zuten berak ikatza ematen ziela etxerako; gizon ona omen zen¹⁵.

Maria Agirregomezkortarekin ezkondu zegoen. Maria Armazio baserrikoa zen, San Pedro gainekoa, baina familia kalera joan zen bizitzera eta bera ere bai. Bikoteak hiru seme eduki zituzten: Jose Miguel Alberdi Agirregomezkorta, Jose Francisco Alberdi Agirregomezkorta eta Juan Casto Alberdi Agirregomezkorta.

¹² (Peio Arrieta, Elgoibar Modernitatearen Atarian 1870-1910)

¹³ Madrid Científico Ciencia e Industria (Publicación de 1904)

¹⁴ (Peio Arrieta, Elgoibar Modernitatearen Atarian 1870-1910).

¹⁵ Familiaren testigantza

Jose Miguel Alberdi bere aitarekin batera atxilotu zuten espioitza egotzita, 1936ko Abenduaren 13an, eta 30 urteko zigorra ezarri zioten. Ondarretako espetxean 1936ko Abenduaren 23an sartu zuten eta handik 1937ko urtarrilaren 19an San Kristobal espetxera eraman zuten.

Jose Francisco Alberdi San Kristobal-go ihesean parte hartu zuen, berriro ere atxilotu zutelarik. 4 egunez biluzik eduki zituzten atxiloturik, jan gabe. Espioitza akusazioagatik 30 urteko zigorra ezarria zuen, eta ihesean parte hartzeagatik 17 urte, 4 hilabete eta egun bateko zigorra erantsi zioten. 1942ko Azaroaren 11n Astorgara (León) eraman zuten. 1942ko abenduaren 26an Figueridoko (Pontevedra) espetxera lekualdatu zuten. 1943ko irailaren 18an Burgozko espetxera eraman zuten eta 1943ko urriaren 21ean Donostiako Ondarretara bueltatu eta bertatik 1945eko Uztailaren 19an atera zen libre¹⁶.

Juan Casto Alberdi anaia txikiak ere “Batallón de trabajadores”-ean pairatu zituenak orain arte argitaratu ez den idatzizko testigantzan utzi zituen, aurrerago irakurri daitekeena (ikusi 5. atala).



Maltzagako errepeidea Elgoibarrerako bidean. Atzekaldean, Barrena Zentrala. (Argazkia: Ojanguren).



José Alberdi eta María Agirregomezkorta bere hiru semeekin: José Miguel, José Francisco eta Juan Casto. (Argazkia: Alberdi familia).

¹⁶ Familiaren artxiboa

OLASOPEKO FAMILIA

Maria Ignacia Arrieta (Azkoitia) “Torrekua” baserrikoa zen, bere senarra Asensio Alberdi (Azkoitia) “Zaldun” baserrikoa. 1908 urtean, lan bila etorri ziren Maria Ignacia, Asensio eta Manuel Alberdi, 4 urteko semea, Elgoibarko Olasope zentralera. Bertan bizi eta bertan lan egiten zuten biek. Urteak aurrera joanda, lau seme alaba gehiago izan zituzten, Teodoro, Maria, Jeronima eta Jose.



Familiaren funtsa.

Jose Alberdi, ezkongabea zen. Maria, Isidro Mendizabal Ondarroarrarekin ezkondua zegoen eta seme bat eduki zuten, Asensio Mendizabal Arrieta. Jeronima, Antonio Elkoroiriberekin ezkondua zegoen. Bi seme-alaba izan zituzten: Luziano Elkoroiribe eta Nati Elkoroiribe¹⁷.

Laburbilduta, familia honek Gerra Zibilean eta lehen frankismoan pairatu zituen gertakariak:

¹⁷ Familiaren testigantza

KIDEA	GERRA ZIBILAN ETA ONDORENGO URTEETAN JASANDAKOA
Manuel Alberdi “Olasope” (1904-1981)	Azkoitiarra jaiotzez, 1908an lau urte zituelarik Olasope baserrira etorri zen gurasoekin bizitzera. Gudaria, Barbastroko kontzentrazio eremuan egon zen preso. <i>Batallón 50 San Andrés, compañía chóferes y Armeros. Sargento Armero STV¹⁸.</i>
Teodoro Alberdi Arrieta	<i>Batallón 50 San Andrés. Sargento Armero STV¹⁹.</i>
Antonio Elkoroiribe	Tropa frankistak sartzean, Donibane Lohizunera (Lapurdi) ihes egin zuen.
Isidro Mendizabal	Tropa frankistak sartzean, Donibane Lohizunera (Lapurdi) ihes egin zuen. EAE-ANVko kidea zen, eta errepublikako komandante baten txoferra ere izan zen. Santanderretik Bordeleko portura joan ziren barkuz, eta gero Frantzia gelditu zen. “Maqui”etan ere egon zen ²⁰ .
Maria Alberdi	Olasopen jaioa, fusilatzeko eduki zuten, espioitza egotzita, Ondarreta eta Saturraranen egon zen atxilotuta.
Jerónima Alberdi	Olasopen jaioa, fusilatzeko eduki zuten, espioitza egotzita, Ondarreta eta Saturraranen egon zen atxilotuta.
Jose Alberdi	Espioitza egotzita fusilatua.



Olasope familia. Goitik hasita, ezkerretik esku-bira: José, Jerónima, Manuel, María eta Teodoro; behean: Asensio, Guillerma eta María Ignacia. (Argazkia: Elkoroiribe familia).

¹⁸ Salamanca-ko artxibategia

¹⁹ Salamanca-ko artxibategia

²⁰ Ondarroako urtekaria 2007. Asentzio Mendizabalen testigantza.

4.2. Erailketak

1936ko abenduaren 11n goizeko 08:00etan, Teodoro Espila Fernandez (*1ª Compañía Tercio de Lacar*, Nafarroako Azkona herriko erreketea) guardia zibilak Elgoibarren zuen kuartelean agertu zen (egun San Frantzisko kaleko LABen egoitza dena) bere testigantza ematera. Gumersindo Benito Mozo (Bartzelona) Elgoibarren zegoen guardia zibilak jaso zuen bertan testigantza.

Ayuntamiento de **Yerri**

Lugar de **Azcona**

Espila Fernández

Teodoro (Nombre)

Natural de	Provincia	Edad	Estado	Profesión	Número de hijos	Número de hermanos
Ysámanueva (Yerri)	Navarra	24	soltero	Contable	-	6

Número de hermanos varones mayores de 16 años	Número de hijos que se han matriculado	Milicia o Ejército a que pertenece	Fecha del ingreso en el Ejército	Herido Impedido Muerto	Fecha	OBSERVACIONES
6	3	Requeté.-Tercio Lacar	18-7-36	herido	Julio 36	

Servicios prestados: **Salió voluntario el 15 de Julio de 1.936 enrolado en el Tercio de Lacar habiendo operado en el frente Norte hasta Asturias Aragón etc. hasta el 23 de Agosto de 1.938 en que fue licenciado.----**

Teodoro Espilaren soldadu fitxa.
(Nafarroako Artxibo Orokorra, Nafarroako Gobernua).

Teodoro Espilaren arabera, herrian zurrumurruak entzuten ziren, bi emakumek, ustez Maria eta Jeronima Alberdi, jendea Maltzagara ezkutuan pasatzen ibiltzen zirela, Gorrien aldera joateko.

Herrian esan ziotenez, falangista bat Eibarrera pasatzen lagundu zuten bi ahizpek. Teodoro Espilak dioenez, *falangistaz* mozorrotu, eta Olasope baserrira inguratu zen. Bertan aurkitu zituen Jeronima Alberdi eta Maria Alberdi ahizpei laguntza eskatu zien, beste aldera pasatzea nahi zuela esanez, gorriekin ihes egin nahi zuela. Hauek, beti ere Teodoro Espilaren esanetan, bidea erakutsiko ziotela esan zieten, arazorik gabe eta seguru beste aldera pasatzeko eta aurrerago zegoen zentralako enkargatuak ere adieraziko ziola bidea; beraiek askotan joaten zirela ere esan omen zioten erreketeari, eta nahi izanez gero, lagunduko ziotela mugaraino. Jeronima eta Maria ihesean gorriekin zebiltzan senarrak ikustera sarri joaten zirela esan zutela ere gehitu zuen Teodorok.

Jose Maria Alberdi Etxanizek, Olaso zentralako enkargatuak, bidea erakutsiko ziola esan zioten Teodoro Espilari eta aurrerago Jose Alberdi Arrieta, Jeronima eta Mariaren anaiak, Ortusate zentralako enkargatuak, ere lagunduko zuela; lehen ere falangista bat gorrien posiziora pasatu zuela kontatu zioten.

Teodoro Espilak, Jose Maria Alberdi Etxanizekin hitzegiteko aukera izan zuen zentrolean eta, beti ere bere hitzetan, Jose Maria Alberdik gorria zela esan zion, eta lagunduko ziola gorriengana pasatzen. Pixka bat itxaroteko gomendatu zion, gorriek bi tanke berri zituztela Maltzagan eta laster Elgoibar erasotu eta hartuko zutela esanez. Beste aukera bat ere eman zion: Maltzagatik gertuen zegoen zentrolean ezkutatzea, bera ere ezkutatuta egon zela kontatuz. Bere bila agertzen ez zirenez, bizitza normala egiten hasi zela aipatu omen zion.

Alberdik, tentsio handiko kableak askatu eta tropa nazionalai, ahalik eta baja gehien eragiten saiatuko zela ere esan ziola dio Teodoro Espilak.

Ignacio Becerrak, Elgoibarko komandante militarrek, 1936ko abenduaren 17an bere txostenean dioenez, Jeronima eta Maria Alberdi, arropa garbitze lanean zeuden Eskolen Plazan eta gorriek plaza bonbardatu baino momentu bat lehenago, bi emakumeak desagertu egin ziren.

Irailaren 22an, Nafarroako 3. tertzioko Guillem kapitaina Olasoko hilerria okupatzera zihoazela, tentsio altuko kable batekin elektrokutatu zen gauez (Ez da heriotza agiririk aurkitu udaletxean). Momentu hartan kasualitatea izan zela uste izan bazuten ere, informazio berriarekin hilketa izan zela dio txostenak.

Jose Maria Alberdi Arrieta atxilotzeko lanetan, Teodoro Espila eta Jose Dominguez Ortiz (Elgoibarko Guardia Zibila) joan ziren, beste aldera pasatu nahi zutela esanda. Jeronimak eta Mariak ondo hartu zituztela dio Espilak eta bidea erakutsiko zietela. Aurrerago, Barrena zentroleko enkar-gatuak pozik jasoko zituela; lehen ere eginda zutela lan berdina esan zieten bi infiltratuei.

Espilak hau entzunda, bi ahizpen atxiloketa burutu zuen eta Olaso azpiko baserrian, *Lauko* hartu zituen preso. Jose Maria Alberdi Arrieta agertu eta hau ere atxilotu egin zuten. Paretaren kontra jarri zituzten armekin apuntatzen, tiro egiteko abisuaren zain. Jeronima, bere alaba eta seme txikiagoarekin (oinez ez zekien oraindik) zegoen eta Maria bere seme txikiarekin eta haurdun.




Lauko baserria XX. mende hasieran. (Argazkia: Ojanguren).

Jose Maria Alberdi Etxaniz atxilotzeko, taktika berdina erabili zuten, baina Jose Dominguez goardia zibilari, gerrikoa ikusten zitzaion eta Alberdik, susmoa hartuta, ez zuen galderen erantzunik eman. Hala ere atxilotu egin zuten, baita bere emaztea Maria Agirregomezkorta, Jose Alberdi Agirregomezkorta semea, Asensio Azkarate eta Isidora Gallastegi ere. Geroago atxilotu zituzten Antonio Aranberri, Paula Bedoya (emaztea) eta Casto Alberdi Agirregomezkorta.

Etxe guztia miatu eta errepublikarren gutun bat aurkitu zutela esan zuen Teodoro Espilak, beti ere bere hitzetan. Gutuna liburu batean agertu zela dio, eta 25 pezeta ere agertu zirela. Gutunak Alderdi Komunista Libertarioaren sinadura dauka.

Atxilotu guztiak espetxean sartu zituzten, eta epaiketa "sumarisimo"-aren zain gelditu ziren. Epaiketa Udaleko pleno aretoan egin zuten, Pablo Cayuela Teniente Koronela presidente eta Arturo Iruretagoyena epaile militarra zirelarik. Testigantzak jasotzen dira bertan (ikusi I. eta II. erans-



Teodoro Espilak Alberditarrak salatzeko erabili zuen gutuna, Bertan Partido Comunista Libertario-ko kideak zirela dio. (Iturria: Archivo Intermedio Militar Noroeste Ferrol, N°796/36).

kinak). Guztiek ukatzen zituzten karguak. Maria eta Jeronimak, kable mozketarena konfirmatu zuten, baina txantxetan bezala esan zutela adierazten dute, ez zutela benetan esaten.

Heriotza zigorra ezarri zieten, Jose Alberdi Arrieta, Jose Maria Alberdi Etxaniz, Jeronima Alberdi Arrieta eta Maria Alberdi Arrietari. Antonio Aranberri Iriondo absolbitu egin zuten, nazionalista izanda ere, katoliko zintzoa zelako, baita Asensio Azkarate eta Isidora Gallastegi. Paula Bedoya eta Casto Alberdi Agirregomezkorta ere aske geratu ziren.

Becerrak telegrama batean esan zuenez, fusilamenduak goizeko 07:15etan izango ziren eta Maltzagara bidean zegoen lubakiaren erdiko aldean burutuko zutela ere aipatzen du. Gaur egun Sigmako etxeak dauden tokian, lehen zelaia zeuden, eta zelai hauek banatzeko harrizko harresiak zeudenez, hura aprobetxatu zuten fusilamenduak egiteko. Fusilamendua “Grupo Mixto de Ingenieros”eko 5. konpainiako sekzio batek burutuko zuen. Abenduaren 23an izan behar zuen hasiera batean, baina gero abenduaren 26ra atzeratu zuten.

Abenduaren 25ean, Maria eta Jeronima absolbitu egin zituzten heriotza zigorretik. Testigantza batzuetan jaso dugunaren arabera, Don Jose medikuak, haurdun zeudela esan eta heriotza bikoitza izango zela esanez, atzera bota zituzten heriotza zigorrak, eta betirako espetxe zigorra ezarri zieten biei, espioitza egotzita.

1936ko abenduaren 26an fusilatu zituzten, Jose Maria Alberdi Etxaniz eta Jose Maria Alberdi Arrieta, Maltzagako bidean zegoen lubakiaren erdiko aldean, espioitza egotzita. Testigantzek kontatzen dutenaren arabera, mareatu egin zen Jose Maria Alberdi Arrieta, eta erreguka ez zuela hil nahi oihukatzen zuen, negarrez. Badirudi hiltzaileek “Mirad vuestra casa por última vez” esan zietela, bertatik ikusten baitzen Olaso. Beste testigu baten hitzetan, apaizak “Tira tira mutil, hori segundu bateko gauza da eta lasai egon, azkar amaituko dute” esan zien bietako bati, irribarrea ahoan zuela. Lekukoak oraindik umea zelarik ikusi zuen fusilamendua²¹.

Becerrak “Columna Los Arcos”-eko Evaristo Garcia de Vinuesa izeneko medikua hautatu zuen heriotza egiaztatzeko, eta horrela egin zuen. Jarraian Olasoko hilerrian lurperatu zituzten, seguraski hilobi amankomun batean.

Irailaren 26an Jeronima eta Mariari, ilea moztu eta errizino-olioa eman zietela aipatu du testigu batek. Familiak ez du honen berririk, baina herri gehienetan gertatu direnez horrelako kasuak, benetako datua izan daitekeela uste da, batez ere jarraian, kamioi batean hartu eta tente eraman zituztelako herri guztian zehar paseatuz, guztiek ikusi, lotsa pasa eta herritarren artean beldurra eraginez²². Bizitza osoko espetxe zigorra ezarri zieten bi emakumeei, Ondarretako espetxera eraman zituzten eta bertan urtebete egin zuten. Saturrarango espetxera lekualdatu zituzten jarraian; beste sei urte eman zituzten bertan. Azkenean, 1942an beste anaia batek, Manuelek, espetxe-zigorraren berrazterketa eskatu eta 1943an aske geratu ziren (ikusi III. eranskina).

Jose Alberdi Etxanizen semea, Jose Alberdi Agirregomezkorta, 50 urteko zigorrera kondenatu zuten espioitza egotzita, aitzak laguntza izango zuela eta, berari egotzita. 1936ko abenduaren 21ean sartu zuten Figueirido-ko (Pontevedra) espetxean, 1943ko urriaren 29an Donostiako espetxera aldatu zutelarik. 1945ko uztailaren 19an askatu zuten. 1950eko urtarrilaren 29an barkamen osoa jaso zuen. Eibarren bizi izan zen orduz geroztik, denera 9 urte egin zituen espetxean eta aita fusilatu zuten.

²¹ Testigantza, ez du bere izena agertzerik nahi.

²² Testigantza, ez du bere izena agertzerik nahi

JUAN CASTO ALBERDI
AGIRREGOMEZKORTAREN
LEKUKOTASUNA.
Gerrateko ibilerak

5

5. JUAN CASTO ALBERDI AGIRREGOMEZKORTAREN LEKUKOTASUNA. GERRATEKO IBILERAK

1918ko martxoaren 27an Elgoibarren, herria eta Maltzagaren artean dagoen trenbide ondoko Erdiko Barrenan, ibaia pasatzeko zubi bat daukan zentral elektrikoan jaiotako Juan Casto Alberdi Agirregomezkorta naiz.

Bost izan ginen gure familian; gurasoak eta hiru anaia: Migel, ni baino 9 urte zaharragoa; Frantzisko, bost urte zaharragoa eta ni neu. Aita zentraleko makinista zen; anaia nagusiak etxean egiten zuen lan eskopeten kaxak egiten eta Frantzisko Eibarren zebilen tornugintza lanetan.

Nik, Juan, 14 urterekin utzi nuen eskola, lanean hasteko. Orduan normala zen hori; irakurtzen, idazten eta lau erregelak ikasi nituen. Don Felix izan nuen maisu, hasi eta amaitu arte.

Nire anaia Migelekin hasi nintzen eskopeten kaxak egiten ikasten, baina 15 urterekin utzi nuen lan hori, aitak Eibarrera eraman ninduelako Bidebarrieta kalean, Gallo tabernaren ondoan eta gaur ere hantxe dagoen Rialto zinearen aurreko Makario Zamakola elektrizitate tailerrera.

18 urte nituenean Makariorekin jarraitzen nuen. Lanbidea ikasten ari nintzen baina egun batean, 1936ko abuztuaren azken zapatuan (29an), goizeko 11ak inguruan, Errepublikarekin lortutako "zapatu ingelesa" genuelako, ordubete geratzen zitzaidan jai hartzeko, arratsaldea libre geneukan eta; bizikleta hartu eta etxera pozik joateko. Baina ordu horretan, hamaikak aldera, bonba-hots handi bat entzun genuen eta tailerrak atzeko aldean mendi aldera zeukan leihotik barrura lur multzoak sartu ziren. Ikusitakoarekin beldurtuta, niretzat aita baten antzekoa zen lankide zaharragoarekin, Diego Aristegirekin, kanpora irten nintzen. Rialto zinearen aurrean geunden. Gaur egun bezala, eraikuntzaren aurrean porlanezko plaza bat zegoen. Ibaia estali gabe oraindik. Plazaren azpira jaitsi ginen Diego eta biok. Amen batean jaitsi ginen. Plazatxo horrek erdian errekak bi aldeetatik pasatzen duen harrizko horma bat dauka. Abuztua izanda eta eguraldi onak egiten zituelako, ur gutxi zekarren ibaiak. Erdi batetik zihoan ura eta bestea lehor zegoen, urak biribildutako harriz beteta. Hara iristean zerura begiratu nuen eta hegazkina bazetorrela Maltzaga aldetik ikusi nuen eta Diegori esan nion bonba bat bota zuela, eguzkitan diz-diz egiten zuen eta. Ahozpeztan ginen ibaiaren alde lehor horretan eta lurretik altxatu egin gintuen sentitu genuen bonba-hots ikaragarriak. Ez dakit esaten noraino jaso gintuen baina min handia hartu nuen bularrarekin zorua jotzean.

Gero ke beltzak bete zuen dena eta ezin genuen arnasarik hartu. Saltoka alde egin genuen handik; eskailerak eta pasabidea zeuden bertan eta handik Ibarregurutzen agertu ginen. Kristalezko *Rialto* izena zuen atarian sartu ginen eta, sartu bezain azkar, beste bonbakada izugarri batek Rialto izena zeraman kristalaren puskak bota zituen gure gainera. - Zer da hau, baina! Geuri segika dabilela ematen du! Atari horretatik berriro irten eta Banco Guipuzcoano-an fijatu ginen. Hobeto esateko, banku hori eraikita zegoen baina hormigoi hutsean, paretarik gabe. Kanpoko aldea taulekin itxita zegoen; bultzatuz zati bat bota eta gero barrura sartu ginen; barkatuko digute, oso larri genbiltzan eta. Sotora jaitsi eta gure artean esan genuen: - Hau ez dute zulatuko. Eta hantxe egon ginen zain apur batean. Hiru hegaldi egin zituzten eta gero dena geratu zen isilik. Handik irten eta... zelan zegoen Ibarregurutz! Zelako txikizioa! Orain Trinkete taberna dagoen lekuan zegoen Boneta farmazia deseginda. Lurrean zegoen beira edo kristal zati piloarekin ezinezkoa zen ibiltzea ere. Arikitzako zubitik jaitsi ginen. Mendiguren Zarrauaren etxea dagoen lekuan, orduan GAC zegoela uste dut.



Juan Casto (eskubian) bere aita eta anaiekin. (Argazkia: Alberdi familia).

Guztia hondatuta zegoen eta Zamakola tailerrera, gure lantokira, gindoazela Diegori esan nion: - Rialton bota duten lehen bonba hori oso hurbil lehertu da. Eta halaxe zen; beste aldean jausi zen eta metroerdigatik ibaia bitan banatzen duen horma horrek salbatu gintuen. Lehergailuak 90 cm inguruko zulo biribila egin zuen. Ez zait ahaztu erdi-erdian zeukan barilazko X hura. Hori guztia ikusita, bizikleta hartu eta azkar joan nintzen etxera. Ezin dut imajinatu ere egin nola joango nintzen.

Baditut biloba bi, neska eta mutila, eta historia horiek entzutea gustatzen zaie. Batez ere Gas-teizen euskarazko klaseak ematen dituen Aitziberri. Historia horiek idatzi egin behar nituzkeela esaten dit, baina zail ikusten dut 89 urterekin orain dela 70 urte baino gehiagoko historiak idaztea, adierazteko esperientziarik ez daukadalako.

Eibarreko lehen sustoak 1936ko abuztuko azken larunbat hartan pasatuta, irailaren 21ean Francoren tropak sartu ziren Elgoibarren eta Olaso baserriko bi lagun, Paskual eta Joan Mari, Patxi nire anaia eta neu, Juanito, etxetik atera ginen Moru menditik Markinara joateko asmotan. Hiru lagunak ni baino zaharragoak ziren eta babestua sentitzen nintzen. Haiei jarraitu besterik ez nuen egin behar. Nahi baino lehenago ilundu zitzaigun eta Markina Etxebarrira heldu ginenean baserri bateko atea jo genuen eta Elgoibarrera frankistak sartu zirela esan genien. Kezkaturik geratu ziren eurak ere. Kontua da baserri hartako sabaian, lasto artean lo egiten geratu ginela. Hurrengo eguneko eguerdirako Markinan geunden eta han beste elgoibartar batzuekin elkartu ginen. Niretzako tris-tea zen giroa. Kezkatuta nengoen, etxetik inoiz irten gabea eta inoiz ezer falta ez zitzaiona izanda. Mundua gainera jausiko balitzaizu bezala.

Baina mugitu beharra zegoen nora edo hara eta Santa Eufemia mendi aldera abiatu ginen eta baserri baten ondoan eseri. Bageneukan jateko zerbait eta gure arteko bat, ziurrenik Paskual, edatekoa eskatzera joan zen; sagardo botila bat izan zela uste dut eta hala hasi ginen hizketan Elgoibarretik alde egin genuela han Francoren aldekoak sartu zirelako. Familia zoragarri bat tokatu zitzaigun, zorionez; baserriaren izena Montomar goikoa zen. Baserria baino gorago zuten txabola bat laga ziguten, ehun bat metrora. Belar sikuz beteta zegoen. Hura izan zen, aldi batean, gure etxea. Esnea eta beste gauza batzuk ere ematen zizkiguten, baina guk geneukan diru apurra gas-tatuz joan zen eta zerbait egin beharra geneukan, frontea geldirik baitzegoen. Paskual mandoekin lanean hasi zen frontean zeudenak hornitzeko. Joan Mari nire lagunak eta nik hasieran Montomarrretik hurbil dagoen Ugarte baserrian jaten genuen. Baserri horretan bazuten mutiko txiki bat, gero probalari ospetsua izango zena, *"Markinako lehoia"*.

Lehen aldi hori amaitu eta gero, ez dakit zelan esan, brigada bat antolatu genuen, gehienok iheslariak, babeslekuak, lubakiak eta ametrailadorentzat nitxoak egiten jarduteko. Egun batean, nire ondoan lan egiten zuen batek kolpera bota zidan egia gordina: - Zure aita afusilatu egin dute. -Ez egidak hori esan; ezinezkoa da; nire aitak ez du inoiz inorekin arazorik izan. Handik denbora batera, ametrailadorentzat nitxoak egiten geniharduela, Jesus izeneko Donostiako dekoratzailea egunkaria irakurtzen hasi zen ahots goraz, gu lanean genbiltzan bitartean eta entzun nion Maltzagan zeuden errepublikarrek Barrenako zentrala bota zutela eta han zeuden pertsonak Eibarrera eraman zituztela. Hori entzunda, berehala esan nuen nik: - Hori neure etxea da, barren! Irakurlea mutu eta serio geratu zen, berri hori niri eman izanaren damuz bezala. Markinako komandantziara bidali ninduten eta han esan zidaten zentral horretakoak Bilbora eraman zituztela eta non zeuden helbidea ere eman zidaten. Gogoan dut nola joan nintzen Bilbora. Etxe hartan sartzean etxekorik ama ikusi nuen bakarrik, beste zentral elektrikoko senar-emazteekin eta egia zen nire aita hil egin zutela 1936ko abenduaren 26an. Migel, etxean geratu zen seme nagusia, Iruñeko San Kristobalen zegoela preso. Ezin da imajinatu ere egin zein tristeza izan zen elkarganatze hura.

Nire aitaren heriotzaz zer esan. Krimena izan zela uste dut. Niri kontatu didatenez, baserritar batek abereentzako txabola bat zeukan Francoren aldekoen menpe zegoen lurrian eta baserria errepublikarren gunean. Txabola hartara joan zenean atxilotu egin zuten erreketeeek eta espioitzat (salataritzat) hartu zuten. Baserritar horrek esan omen zuen bera ez zela espioia. Salatariak behean zeudela. Zoritzarrez, gu bizi ginen zentral hori, frontea geldirik egon zeneko hilabeteetan, bi lerroen artean geratu zela, baina zati handiagoa Francoren aldekoen aldean. Hauek behartu zuten aita zentrala martxan izateko, gure zoritxarrerako. Horregatik hil zuten gure aita.

Horrela zihoan aurrera gure zoritxarreko bizimodua eta 1937ko apirilaren 1ean, Durango bonbardatu eta hurrengo egunean, kamioi batean hartuta eraman gintuzten gure piko, pala eta otarrekin. Orduan ez zegoen besterik. Kanposantuaren ondoan utzi gintuzten. Han bonben leherketek egindako zulo handiak zeuden errepidearen erdian. Haiek bete beharra zegoen. Kanposantura sartzea bururatu zitzaigun... Zer beldurgarria, neure Jainkoa! Ezin sinetsi ikusi ezean. Dena gorpuz beterik. Denak batera jarrita buruz gora, erdian pasabidetxo bat lagata. Hilobien gainetan ere bazeuden gorpuak eta... oraindik izugarriagoa dena... hildako neskato eta mutikoak pila handi batean, zabor multzoa izango balira bezala; han geundela gudari bat agertu zen eta zera esan zigun: - hemendik zebilen anaia baten bila nabil. Durango esan nahi zuen. Hori esan eta segituan gehitu zuen: - hemen dago. Poltsikoak arakatu eta oraindik martxan zebilen katedun erlojua hartu zion. Beste gauza bat, ahaztu ez dakidan. Kanposantu horretan ikusten zen hilda zegoen abadea meza ematen hil zela, halako soinekoz jarrita zegoen eta. Besteak bezala buruz gora etzanda eta zapaten zola berri-berriak ikusten zitzaizkion, egun hartan estreinatu izan balitu bezala. Atentzioa eman zidan zapaten zolak metrailak egindako urratua zeukala.

Gogoan ditut, era berean, kanposantuaren inguruan zeuden belar eta sasiak. Zeharo orraztuta zeuden, uholde handi batek ibai ertzak lagatzen dituen bezala. Bonben leherketen uhin hedakorak eragindakoa eta itomena sortzen duena.

Batzuek esaten dute zauri zaharrak laga egin behar direla, orba induta daudelako, baina hori bizi izan dugunontzat, bizitza guztirako daude zabalik. Horrela, 1936ko irailaren 22tik 1937ko api-



Barrena Zentrala gerra lehertu baino lehen. (Argazkia: Alberdi familia).



Barrena Zentrala txikituta. (Argazkia: Alberdi familia).

rilaren 27 arteko aldia Markinan eman genuen, egun batzuk gorabehera. Horixe izan zen frontea geldirik egon zen tarte. Bilbora eraman gintuzten Defentsako Departamentura, Guda Zaingoa euskaraz. Datuak hartu eta Gudari-txartela eman zidaten Ingeniarien batailo mistorako, 1937ko apirilaren 28an. 19 urte neuzkan. Oraindik badaukat txartel hori. Patxi nire anaia infanteriara destinatuzuten.

Niri Markinan erabilitako erremintekin jarraitzea tokatu zitzaidan, piko eta pala (ingenieria gutxi). Lubakiak egitea eta alanbre-hesiak jartzea zen nire eginkizuna. Gogorrena gauzez lan egitea izaten zen; egunez kanoi, bonba-hots eta etengabe metrailatzen zuten ehiza-hegazkinen zaratekin ez zegoen lo egiterik. Gure aldetik ez zegoen hegazkinik. Zurrumurruak bai (Radio Makuto), gerretan ohi denez, baina beti zeuden iristear; bidean galtzen ziren, itxura denez.

GUDA - ZAINGOA
DEPARTAMENTO DE DEFENSA

GUDARI - TXARTELA
TARJETA MILITAR

Izena / Nombre: *Juan Alberdi Aguirre*

Soldada / Batallón: *1er Mista Ingeniero* Dagundia / Compañía: *Elgoibar*

Joyotia / Natural de: *Elgoibar* urtedun / edad: *19* gudaritu zan eguna / enrolado el día: *28*

ile / mes: *Abril* urtea / año: *1937* senbaki onekin / con el número: *105762*

Euzkadi'ko gudaroztean sartu aurretik bizi zan etia / Residencia habitual antes de su ingreso en las milicias de Euzkadi: *Elgoibar*

Kalea / Calle: *Central Electrica* etxea / casa: *Elgoibar*

Bilbao, *28* de *Abril* urtea / año: *1937*

Capitán de Batallón, El Jefe de Movilización, Tarteru-jabearen izena, Firma del interesado, Salbiko Buruzagia, El Comandante Jefe del Batallón.

Juan Alberdi

Juan Alberdiren Gudari txartela, 1937ko apirilaren 28an egindakoa.
(Argazkia: Alberdi familia).

Aspaldi gertatuak dira eta ezin dira gogoratu jasandako guztiak eta ezin idatzi ere nahiko nukeen moduan, baina saiatuko naiz gogoan ditudanak eta inoiz ahazten ez direnak kontatzen.

Bilborako ibilaldi horretan bi momentu ditut gogoan, ahazten ez zaizkidanak. Lehen esan dudanez, egunez ez ziguten uzten lo egiten eta gauzez lan egin behar. Ba, egun batean benetan egin nuen lo sakonune batean eta esnatu nintzenean eguzkia ezkutatua zen eta tiro-hotsak entzun nituen. "Ene Jainkoa" esan nuen. Frankistek aurrera egin zuten eta gertu neuzkan. Sakon hartatik zeharo beldurtuta irten nintzen. Lagunak utzi nituen lekura igo behar nuen baina bidean errepide bat zeharkatu behar. Errepide hartara iritsi eta berehala ametrailadorak disparatzen hasi ziren bideko hautsak harrotuz nire hanken inguruan. Eseak egiten zeharkatu nuen errepidea eta buruz behera ahozpeze egin nuen mus sastraka artera eta nire lagunak egondako lekura iritsi nintzen. Haiek joanak ziren atzerantz baina gaututa gero aurkitu egin nituen.

Bigarren une larria gauzez izan zen. Mendira igo eta gure lagun gudariak zeuden lubakietara heldu ginen. Gure lana, haien aurretik metro batzuetara alanbre-hesiak jartzea zen. Lan horretan hasi eta laster frankistek, bat-batean, esku-bonbak botatzen eta metrailatzen hasi ziren. Mendi guztia argitu egin zen, suzko erroberak balira bezala. Buruz behera etzan nintzen frankisten fronteari begira. Orain datoz nire bizitzako segundorik luzeenak. Ezin nituen begiak irekita eduki, balek as-

tindutako lurra zetorkidan eta. Balak lurrian sartzen ziren nire bekokitik 10 cm-ra. Oso ondo ikusten nuen nola jasotzen zuten lurra, belar eta guzti. “Ene Jainkoa! Noiz amaituko duk tiroketa hori!”.

Argi dago metrailadore hori puntu finko batean kokatua zegoela eta horrek salbatu zidan bizia. Nire bizitzako segundorik luzeenak pasatu eta gero, tiroketa geratu zenean dardaraka jaiki eta gure lubakietan sartu nintzen, buruz beheara salto eginda, beste gudarien gainera.

Gernikakoaz gogoratzen dudana bakarra, handik pasatu nintzela bonbardatu ondorengo gauerdian eta han ez zela etxe hondakinak eta sua besterik ikusten. Horrela gindoazen, beti atzerantz, hegazkinek zanpatzen gintuztelako. Mendiak ukitu gabe lagatzen zituzten, baina gogoan dut haietako bat, Bizkargi, egun askotan bonbardatu zutela etengabe eta han ez zela ezer berderik ikusten; denak zeukan lurraren kolorea.

Dena tristea izan ez dadin, kontatu nahi nuke txiste baten antzekoa, baina txisteak ez dene. Tren baten tunelaren ahoan geunden, egun hartan tunelean lo egitea tokatu zitzaigulako, gaez lan egiteko. Arratsaldean gure platerrekin lerroan jarri ginen afari- arrazioa jasotzeko han, trenbidearen erdian. Sukaldaria bere lapiko eta burruntzaliarekin banaketa egiten. Frankisten balak iristen ziren; hurbil zeuden eta bala galduak inguruan jausten ziren. Lurra jotzean *txort!* zarata egiten zuten baina sentipen ezatsegina zen. Sukaldariak, balen zarata hori entzunda, burruntzalia jaso eta esan zuen: - bota, koldar halakook! (tirad cobardes!). Burruntzalia jaso zuenean *tac!* zarata entzun zen. Denok entzun genuen. Burruntzalia jo zuen bala hark. Barre egiteko motiboa, baina berak ez zuen barrerik egin. Txisteak dirudi, Don Celes-en agertzen direnen antzekoa. Hari ere ez zitzaion halakorik bururatuko. Baina ez zen txisteak.

Hala iritsi zen 1937ko abuztuaren 24a. Santanderrera goaz kamioian; zurrumurru txarrak zebiltzan Santander laster jausiko zela eta Torrelavegarantz joan behar izan genuen. Ideia horrekin jarraitu genuen baina kilometro gutxitara gure gudarosteko bi motordun etorri ziren, besoekin keinuak eginez ezin zela pasatu. Horrela, kamioiak buelta eman eta Santanderrera berriro ere. Kamioitik jaitsi eta ez geneukan nork agindu, denak desagertu baitziren. Gaur iritsi zen eta portuan geunden. Batzuek esaten zuten gu handik ateratzeko ingeles itsasontziak etorriko zirela. Baina ez zen ontzirik azaldu. Demaseko sakeoa edo lapurreta egon zen; arropa, janari eta likore almazenetako ateak apurtu eta jendeak bizkarrean eraman zituen betetako kaxak euren etxeetara. 1937ko abuztu horretan, Elgoibarko patroia den San Bartolome eguneko jaian, hain zuzen, nire herriko jaiak ziren eta gogoratu nintzen, bai, baina jaietan egon beharrean ni gerrako presoak nintzen eta nirea nola bukatuko ote zen pentsatzen nuen.

25a ere iritsi zen eta berdin jarraitzen genuen; ez ziren iristen Francoren tropak; baina 26an, arratsaldean, orduan erabiltzen ziren erako bi auto beltz azaldu ziren; ate ondoan zutik egoteko plataforma zuten eta haietan, ziurrenik polizia izango ziren gizonak beltzez jantzita eta pistolak eskuetan. Haien atzetik zetozen infanteriako tropak desfilatzen, baina gehien harritu ninduen zera izan zen: bat-batean leiho eta balkoi guztiak bandera gorri eta horiz bete ziren. Sinestezina! Bandera haiek eskuetan izango zituzten eta, orkestrako zuzendari baten agindua jarraituz bezala, denek batera atera zuten.

Benetan txundituta geratu nintzen, ez zegoelako bandera harekin apaindu gabeko leihorik ez balkoirik. Lehen nire kementa oso ondo ez bazegoen egoera hartan, hura errematea izan zen. Nerekiko esaten nuen: - Non nago ni, baina?

Gerora pentsatu izan dut niri ere, etxe horretan bizi izan banintz, kolore horiek jartzea kome-niko zitzaidala. Han bizi ziren askori ere gauza bera gertatuko zitzaien, beharbada, oso arraroa

baita jende guztia kolore berekoa izatea. Haiek sartu eta hurrengo egunean, 1937ko abuztuaren 27an, egoera hunkigarria eta tristea zen. Gure gudariak eta milizianoak armak bota eta kalean arma piloak zeuden. Horrela, talde handietan batu gintuzten eta niri Santanderreko zezen plazan itxita egotea tokatu zitzaidan. Dena bete-beterik geratu zen, palkoak eta erdiko zelaia. Bakoitzaren beharrak egiteko lekuak ere -komunak beteta. Hori hasteko. Gogoan dut zezenak irteten diren lekua nola jarri zen egiten zuen beroarekin; begiak ere erre egiten zitzaizkizun, baina harrigarriena zen handik ez zela inor (agintaririk) agertzen. Egun bat, bi eta hiru pasatuta, laugarrena ere bai, uste dut, kontua da ez genuela mokadurik probatu denbora horretan guztian. Esan dudana bezala, lau edo bosgarren egunean kamioi bat agertu zen zezen-plaza barrura ogi-puskekin eta soldadu batzuk lerroak egiten hasi ziren horiek banatzeko, baina zezen-zelaia jendez beterik zegoenez eta palkoak ere halaxe, ezinezkoa egin zitzaien gu lerrotan jartzea eta soldaduak ogi-puskak airera botatzen hasi ziren. "Ze desastre, ene Jainkoa!" Momentu haiek nola pasatu nituen esango dizuet. Kamioiaren atzeko partean nengoen eta jendearen uholdea nire bularraren kontra etorri zen. Pentsatu nuen bertan hilko nintzela zapalduta, baina makurtzea lortu nuen eta kamioiaren azpira sartu nintzen. Hantxe egon nintzen ogi zatiak amaitu ziren arte. Ezer lortu nuen galdetzen badidazue, zerbait lortu nuela esango dizuet; izan ere, badut eman beharreko xehetasun bat: zezenplaza horretan aurkitu nuen lehengusu bat, Mariano Agirregomezkorta, eibartarra eta ile-apaintzailea zena. Elkarrekin geunden eta istilu haren ondoren galdetu zidan ia ezer lortu nuen eta baietz erantzun nion, ezkutuan neukala. Lehengusu horrekin banatu nuen lortu nuena. Nahaste hura amaitu zenean palkora begiratu nuen, agintarien palkora, eta han zeuden italiar militarrek guk gorriok, bost egunez ezer jan gabe egon ondoren, Francoren ogia lortzeko nola saiatzen ginen grabatzen, pelikula egiten.

Bi egun geroago, zezenplaza horretatik irtetea tokatu zitzaidan eta merkatal-ontzi zahar bateko sotoan sartu gintuzten. Lapiko handi baten antzekoa zen hura. Egun haietan bero egiten zuen eta, gainera, itsasontziaren txapak ere asko berotzen zuen. Urik edan gabe eta ontzia ez zela mugitzen.

Iritsi zen gaua eta, halako batean, hasi zen mugitzen. Ez nekien non nengoen ere. Santoñara gindoazela jakin nuen. Ez dakit zer distantzia dagoen Santanderetik Santoñara baina halako baldintzetan oso luze egin zitzaidan. Hala, guztiok lerrotan jarri eta soldaduek gidatuta, Santoñako gotorlekuan sartu gintuzten. Uste dut herriaren goiko aldean zegoela eta harritzkoa zela. Han egon nintzen bost edo sei egun eta Mazarredo institutura jaitsi ninduten. Hura, gotorlekua baino txarra goa zen. Ezin da hainbeste jende eta miseria imajinatu ere egin. Gure aurrean zegoenari begiratu eta zorritzoski ikusten zenuen, hori kanpotik; zer ez zen izango barrutik. Egunean behin jateko ogi puska bat eta bi pertsonentzat 300-350 gramo izango zituen indibaba pote txiki bat ematen ziguten goizeko 8etan. Baita idiaren haragia deitzen zioten pote bat ere, 600 gramo ingurukoa, lauren artean jateko. Haragi hori seboz estalia egoten zen. Zer banaketa egingo genuen, ba! Miseria bat egun guztia pasatzeko. Patioan lubakien antzeko zuloak zeuden, 50 cm inguru sakon, komunen orde. Han ez zegoen ezer ezkutuan egiterik. Gogoan dut ez neukala kakarik ere; egiten nuena mukiaren antzekoa zen, odolez nahastuta. Beldurra ematen zidan ikuste hutsak eta pentsatzen nuen handik ez nintzela bizirik irtengo. Lo egiteko moduak, Durangoko kanposantuan ikusi nuena gogorarazten zidan, elkarren ondoan etzanda eta erdian pasabide estuarekin eta sabaian zintzililik watio gutxiko bonbila, baina nahikoa zen hura nola zeuden edo geunden erdi lo, hazka eta hazka, jasan ezinik, ikusteko. Baina institutuko departamentu hartan altuera handi samarreko armairu bat zegoen eta armairuaren gaineko ertz batean ogi zati txiki bat ikusi nuen eta hura hartzeko tentazioak zirikatu ninduen. Beldur nintzen norbaitek ikusi egingo ninduela, baina hartzea erabaki nuen. Jaiki eta inor ez zapaltzeko tentu handiz, hartu egin nuen eta nire lekura itzuli. Altxor bat


lortu banu bezala etzan nintzen. Jainkoak daki noizkoa zen ogi zati gogor hura, hagina sartzean zarata egiten zuen eta. Noraino irits daitekeen gosearen miseria! Orain, oster, aurreko egunetako zakukada ogiak eramaten dira baserrietara abereei emateko eta bezeroak ikusten ditut ogia erosten eta erabaki ezinik zein ogi hartu, bigunagoa ala xigortuagoa.

Egoera horretan amaigabeak egiten zitzaizkidan egunak, niri noiz deituko zain, eguerdi aldera posta iristen baitzen, dirudienez, eta patioan gutako bakoitzaren herritik iritsitako gure portaeraren berri ematen zuten agiriaren izenak ahots goraz esaten baitzituzten, Eguneroko egoten nintzen ordu horren zain eta nire kolporako esaten nuen nolako portaeraren berri emango ote zuten nitaz, aita afusilatua eta anaia nagusia Iruñeko San Kristobalen preso izanda. Beldur nintzen. Azkenean, 1937ko irailaren azken egunean eman zuten nire izena. Joan nintzen eta gela batean sartu. Mahai batean militar bat zegoen; nahiko adinekoa iruditu zitzaidan. Gogoan dut ilea oso zuritua zeukala eta haren aurrean, militarra bizkarra emanda, sei bat neskato, falangista jantzita, euren bularretan gezi brodatuak zituztela. Ni ate ondoan geratu nintzen, militarra eta neskatala falangistak ikusteko moduan. Militarrek paperezko orri bat zeukan eskuan, ez oso handia, 20x15zm. ingurukoa eta irakurtzen hasi zen eta ozenki hau esan zidan, soilik: - Mozkortu egiten zarela e! Mozkortu, e! Neskatoak euren eserlekuetan biratu eta niri begiratzen zidaten. Ni, lotsatuta. Zer pentsatuko ote zuten nitaz...! Hain gaztea eta mozkortia! Une hartan pentsatu nuen: "zoraturata daude nire herrian portaera agiri hau bidaltzeko" Ez dakit zenbat aldiz esan zidan ere "mozkortuta, e!". Paperaren goiko aldean arkatzez bi letra idatzi zituen, A-D, eta honako hiru hitz esan zizkidan mozkorraren kontu horretaz: - Egia da hori? - Ez, erantzun nion. Orduan besoa jaso eta haserre hasi zen indar guztiarekin oihuka; - Alde hemendik, alde hemendik!!! Oso bizkor alde egin nuen, izututa. Handik irtenda, nire artean pentsatu nuen pozik irteteko arrazoiak neuzkala, bidali zuten portaera agiriarekin zerbait txarragoa bururatzea ere gerta zitekeen eta. Izan ere, laster jakin nuen han jarritako A-D haiek *Adicto Dudoso* esan nahi zutela. Mozkorraren kontu hori ez zela ziurra, alegia.

1937ko iraila gose eta zorri artean pasatu ondoren, nire portaera irakurri eta hurrengo egunean, beste atxilotu batzuekin batera atera ninduten ahaztu ezinezko Santoñako Mazarredo institutu hartatik. Ez daukat inon idatzita, baina ez zait izen hori ahazten. Ez naiz berriro Santoñara itzuli eta askotan gogoratzen dut institutu hori. Han ote dago oraindik? Kalera irteteko atea burdinazko barraz egina zegoela akordatzan naiz eta ate horretan menua iragartzen zuten kartel batean, jatetxeek kaleko atean jarri ohi duten antzekoa, jendeak ikus zezan zein ondo tratatzen gintuzten. Hori ikusi eta aguanta egin behar, zer erremedio!.

Hurrengo helmuga Miranda de Ebroko kontzentrazio esparrua izan zen. Arratsaldeko hirurak edo laurak izango ziren, gutxi gorabehera. Gogoan dut ezusteko bat izan zela heldu eta berehala indibaba gorriak eman baitzizkiguten. Oso saldatsuak zeuden baina Santoñan hilabetez ezer berorik hartu gabe pasatu ondoren, hura ederra zen. Eman ziguten ogia ere gogoan daukat, elurra bezain zuria, akaso arroz irinez egindakoa. Kontzentrazio esparru hori zabalgunek handia zen, arantzadun alanbrez itxia eta zelai horren ondotik ibai bat pasatzen zen eta egurrezko zubi baten antza zeukan, ontziak lotzeko plataformen modukoa, komunaren zeregina betetzeko balio zuena. Beraz, zuzenean ibaira. Ez zen oso higienikoa izango baina Santoñakoaren aldean hobea, hangoa ez zelako komuna, patioan egindako zanga bat baino.

Miranda de Ebrotik Zaragozako San Juan de Mozorrifar-eko zelai edo esparrura eraman ninduten. Han, destinoa Jakan zeukan *Batallón de trabajadores 23*-an sartu ninduten, 1937ko urriaren 1ean. Tropa frankistek aurrera egiteko, gure eginkizuna kaleetako trabak kendu eta tropa zein ibilgailuentzat bideak libre lagatzea zen; berdin bonbek bideetan egindako zuloak betetzea ere.




Juan Alberdi Batallón de trabajadores 23an lan egitera behartu zutenaren agiria. Bertan, Miranda de Ebro, San Juan de Mozorrifar eta Jaca aipatzen dira.

Asko gustatuko litzaidake pasatutako leku guztien zerrenda bat izatea. Jakara artekoa esanda daukat baina handik aurrerakoak ez ditut gogoan; banaka batzuk baino ez. Aierbe, Barbastro, Caspe, Monzón, Huesca, Plasencia del Monte, Lupiñán, Lérida, Gerona, Madrid, Alto de los Leones... Zenbat aldiz pentsatu izan dudan idazteko aukerarik izan banu liburu potoloa egiteko beste datu izango nituela, baina ezinezkoa izan zen eta orain, 70 urte geroago, zailagoa da; baina jarraitu egin nahi dut, ahaztu ez zaidan kasuren bat edo beste kontatzeko.

Zehatz esateko ez dakit sei ala zazpi izango ginen lanean, baina horrek berdin dio; gure erremintak piku eta pala ziren. Pikatzean harri txintzarren antzeko bat ateratzen genuen, ibilgailuak zirkulatzeke bidean botatzeko oso ona. Harri txintzar horrekin kamioiak zamatzea zen gure egin-kizuna. Nire lankideak euskaldunak ziren eta eskoltaturik geunden: guardia zibilak, falangistak, soldaduak... leku horretan egin genituen egun batzuk kamioiak kargatzen. Soldaduak zeuden gu zaintzen; egunero soldadu berdinak. Haiekin konfiantza hartu zuten nire lagun batzuek eta gerra hartaz hizketan hasi ere bai. Esan ere bai nire lagunek, guk hegazkinak izan bagenitu ez zutela Bilbo hartuko... Gernikako bonbardaketa alemaniarrek egin zutela... Elkarrizketa honen ondoren, hurrengo igandearen arratsaldean, konpainia osoa lerrokatu gintuzten eta hantxe ikusi nuen gurekin hitz egiten egon zen soldaduetako bat, ofizial baten ondoan. Berehala konturatu nintzen arazoa larria izan zitekeela, gu identifikatzeko asmoa zutela, soldadu harekin hitz egin zutenak, bereziki; nik elkarrizketa hura entzun baino ez nuen egin, baina talde horretakoa nintzenez, neu ere beldurtu eta izutu egin nintzen. Beti neukan gogoan nire aitari gertatu zitzaiona. Horrela, soldadu hori eta ofiziala gure aurretik pasatu ziren, astiro-astiro, gure aurpegietara ondo begiratu. Nire parera iritsi eta gelditu ondoren, aurrera egin zuten eta nereikiko esan nuen: "Ene Jainkoa!

Oraingotik libratu naiz!” Azkenean hiru lankide atera zituzten lerrotik eta gehiago ez nuen haietaz ezer jakin; ziurrenik ez zuten azken onik izango.

1937ko urriaren 1etik 1938ko apirilaren 20ra arte, 23. “*Batallón de trabajadores*”-en ibili nintzen. Data horrekin desegin zuten eta Deustuko kontzentrazio esparruan sartu ninduten, hau da, Deustuko Unibertsitatean. Han sartu nintzenean sentipen ezatsegina izan nuen. Hainbeste jende egonda, komunak trabaturik gainezka eta kaka pasabideetarako iristen zen. “Hau desastrea! Hau nazka!”-esan nuen nere kolporako; “*Batallón de trabajadores*” ona ez bazen, hau ere ez zen atsegina. Horrela, sartu ginenetik hamar egunera, hau da, 1938ko apirilaren 30ean bazkaltzeko eseri ginen eta jaten hasi baino lehen ahots bat entzun nuen oihuka: - Bolondres bat Amorebietarako! Berehala jaiki nintzen pentsatuz Amorebieta Elgoibarretik hurbilago zegoela, nahiz eta Elgoibarren ere jada etxerik ez nuen. Bonbardaketak eragindako trabak libratzea izan zen han ere gure lana. Lehendik ere ezagun nituen piku eta pala. Horrela, urte bereko azaroaren 10a iritsi zen eta, bat-batean, berriro ere Deustun sartu gintuzten. Laster jakin genuen zein izan zen arrazoa: Iruñeko San Kristobaletik alde egin zutela presoek. Beste kezka bat niretzat, hantxe baitzeuden nire bi anaiak eta ez nekien ezer, non eta nola izango ziren. Berriro Deustun sartu eta bi egunetara, 1938ko azaroaren 12an, Caspera eraman ninduten, hango 6. batailoiko 1. konpainiara. Hauek gogoan ditut, agiriak oraindik neuk dauzkat eta.



Deusto eta Caspeko egonaldia egiaztatzen dituen dokumentua, 1940. urtean Depósito de Concentración-etik igorrita.

Inoiz ahazten ez zaizkidan gertaerak kontatzen saiatuko naiz. Lautada handia zen eta garia jasota zegoen. Lautada horren erdian etxe handi bat zegoen eta hantxe giltzapetu gintuzten, lo egiteko. Bazegoen argi bat eta barruan gariz betetako zakuak zeuden. Han etzan ginen zakuen gainean eta bertan hartu ninduen loak, baina aztoratuta iratzarri ninduten nire gainetik zebiltzan arratoiek. Pentsa dezakezue zelako sustoa eta nazka. Benetako tortura. Ez dakit ziur esaten zenbat gau izan ziren; kontua da gaua leku hartan nola pasatu behar nuen pentsatzen ematen nuela eguna. Gogoan dut burua ere mantapean gordetzen nuela arratoiek hozka egingo zidaten beldur. Potoloak ziren eta ez naiz harritzen, hainbeste gari bertan izanda. Gau haiek izan ziren nire bizitzako gaurik ezatseginenak.

Oroitzapen atseginik izan gabe, gogoan dut Huescara heldu ginela. Huesca zartagin baten antzera zegoela esan ziguten. Konturatzen ginen gure buruzagiak ere kezkatuta zeudela Huescara iristean. Zartaginaren irudiak esan nahi du Huesca hiri barruan Francoren tropak zeudela eta Huescaren kanpoko aldean errepublikarrak. Errepide bakarra zegoen hirira sartu eta handik irteteko. Benetako zartagina. Gogoan dut, errepublikarrek hiria kanoikadaz erasotzen zutenean kotxeak ateratzen zirela abiadura guztian: buruzagiak ziren, preso hartuko ote zituzten beldur. Kanoikadak isiltzean, berriro sartzen ziren hirira.

Baina itzul nadin gurera. Beti bezala gure erremintak genituen lagun: piku eta pala. Laster sartu gintuzten gure arloan. Dena zegoen hurbil eta Francoren soldaduen trintxerak ziren gure lantokia. Pentsatu nuen lubaki haietan egin beharko genuela gure lana baina hori baino arriskuatsuagoa zen: *“avanzadilla”* izeneko lubaki berriak egin behar genituen. Ez dakit nola azaldu hau nire biloba Aitziberri. Lubaki horiek atzeko trintxera edo lubakien aurrean goardia egiteko ziren, gauez erasotzen bazuten, atzekoei abisua pasatzeko. Normalena eta logikoena lan hori gauez egitea zen. Egun argiz jardun behar, arrisku handiak hartuta, soldaduak eta haien buruak euren lubakietan zeuden artean. “Zer egoera larria! Berehala akabatuko gaituzte!” Hala hasi ginen pentsatuz hura izango zela gure azkena. Aurrera egin ahala, Huescako kanposantuen aurrean gaudela ikusten dugu. Haren hormak ikusten ditugu eta hormen gainean mantak zabalduta. Dena zegoen isilik eta hantxe hasi ginen lubakiak egiten 50-60 m. inguruan. Ni kanposantuen hormara begira eta harrituta nola zekiten gu presoak ginela eta haien aurka lanean ibili arren, bizitza barkatzen zigutela. Nik, ahal nuen guztietan begiratzen nuen kanposantu hartara eta ukabila jasotze nuen, ikus nintzaten, baina atzekoek ni ikusi gabe. Nik ikusi nuenagatik esan dezaket errepublikarrak gizatiagoak izan zirela eta seguru nago Huesca hiri barruan errepublikarren ordezkari frankistak egon baziren, ez zutela zibilak akabatzeko kezka handirik erakutsiko.

Horrela egin genituen lanean hiru egun. Eguerdiko hamabietan lubakitik atera eta bazkaltzera joatea gustatzen zitzaigun, baina laugarren eguneko eguerdian, kabo bat bere fusila sorbaldan zuela lubakitik irten eta guregana lasai-lasai zetorrenean, guregana heldu baino lehen, tiro bat entzun zen eta kabo hori lurrera jausi zen izterra zulatuta. Guk, egiten ari ginen lubakitik atera eta jaso egin genuen kabo zauritua eta bere lubakietara eraman. Ez zen tiro gehiagorik izan. Xehetasun hori harrigarria izan zen; prismatikoekin etengabe bijilatuta geunden. Kasu honetaz askotan gogoratzen nintzen; izan ere, nik ahal nuen guztietan jasotzen nuen burua eta bular gainean ukabila estutu, haien etsaia ez nintzela adierazteko.

Gertaera honen ondoren, ez ginen egunez gehiago joan. Gerora, gauez egun batzuetan. Horrela bukatu zen historia hori. Ahaztu ez zaidan beste oroitzapen bat ere badut. Huescan bertan lubakiak egiten ari ginela, ni une hartan palarekin nebilan eta laguna pikarekin. Lubakia nahiko sakona zen, sorbaldaraino altueran. Nik aterata neukan lagunak pikatu zuena eta behera begira

nengoen lagunak pikatzen zuena ikusten. Eta une horretan oihu bat entzun nuen: -“ Ez dut inor ikusi nahi segundo bat ere geldirik! Zuek apurtu duzuena zeuek jaso behar duzue!” Begiak gora jaso eta guardia zibil bat ikusi nuen eta fusilaren kanoia nire buruari begira. Harri eta zur geratu nintzen; oraindik ez nuen palakadarik ateratzeko; pikatzaileak hankapean zeukana bakarrik. Ez nekien zer egin. Une oso larria izan zen. Pentsatu nuen burua zanpatuko zidala, Hitlerren moduko bibotetxoa zeukan goardia hark. Gorrotoz gainezka zegoen eta oso erraz zeukan niri burua apurtzea; hilobia geuk eginda geneukan, gainera, eta bera libre geratuko zen, nire alde ez zuelako inork egingo eta haren gezur batek gure egia guztiek baino gehiago balio zuelako.

Baliteke nik ez kontatzea gertaerak dagokien loturaz, baina gogoan dut nola ibili ginen Kataluniako iheslarien atzetik. Uste dut Gironan izan zela. Frantziaren mugan. Ezin da imajinatu ere egin zenbat arropa, koltxoi, errediza eta abar utzi zuten botata. Guk, pilatu eta erre egiten genituen. Frantziako mugalerroan ikusten nuen Frantziako guardia, metro gutxitara. Eta pentsatzen nuen oso erraza izango zela muga pasatzea. Nire ama neukan gogoan, banekielako Bilbotik Frantziara eraman zutela. Gauza asko pentsatu nituen denbora gutxian, baina ez nintzen muga pasatzen auzartu. Askotan pentsatu izan dut Frantziara joan izan banintz Alemaniarrek atxilotuko nindutela. Gogoan dut, halaber, nahikoa denbora egon ginela lanean Lleidan ere. Behiak garraiatzeko erabiltzen zituzten bagoietan sartu gintuzten. Bagoi itxiak ziren, burdin hesia zuen leihatila batekin. Ezagun egiten zitzaizkidan tren mota horiek, ni trenbidearen ondoan jaiotakoa bainintzen, Elgoibar eta Maltzagako zentral horretan. Grazia egin zidan behien antzera bidaiatuko nuela pentsatzeak, baina txarragoak pasatzetik netorren eta berritasun baten antzekoa izan zen niretzat, aspaldian trenean ibili gabe nengoen eta.

Bagoi horretako lagunak gehienak Azpeitia eta Azkoitikoak ziren eta bazekiten egur-lanak egiten eta laster egin zuten geltokietan hartutako zehar-habeak erabilia, tarteko zoru bat eta horrela batzuk goian etzaten ziren eta besteok behean. Oso ondo konpondu ginen. Tren hori oso-oso astiro zihoan eta ez genekien nora gindoazen. Gehienetan gauez mugitzen ginen eta egunez geltokietako bide itsuetan uzten gintuzten. Egunez tropak pasatzen ziren. Gu baino garrantzitsuagoak ziren haiek. Bidaia horretan ez genuen lanik egiten eta sardina-lata eta ogi-puska bana ematen ziguten egunero. Zinkezko kubo bat geneukala gogoratzen dut, orduan plastikorik ez zegoen eta; baina guretzat bera hobia, kubo horretan garbitzen genuelako gorputza eta gero, ontzi berean egiten genuen zopa. Bakoitzak sardinen olio apur bat eta ogi zatitxo bana ekartzen zuen eta horrela, familia elkartu baten modura zopa beroa jaten genuen eta sardinak gainetik.

Horrela zihoazen egunak eta gauez ibili eta gero, goizean esnatzean Cantalapiedrako geltokian geundela ikusi nuen. Grazia egin zidan. Nork esan behar zidan ni Cantalapiedrara iritsiko nintzenik. Izan ere, mutiko denboran entzuna nien nagusiei:- Zu Cantalapiedrako izango zara. Gustatzen zait herri horren izena eta ez zait ahazten.

Horrela, bagenekien behintzat Salamancako probintzian geundela eta beste geltoki batean 10-12 urteko mutiko talde batekin aurkitu ginen eta guri begira harrituta zeuden adarrik ez geneukala elkarri esanez. Hori entzutean, barregura sartu eta esan nien: -Gorriek adarrak zituztela uste al zenuten? Eta eurek erantzun: - Hori esaten ziguten. Han ez zuten gerrarik ikusi baina edozerrek balio du propaganda egiteko.

Lurralde haietatik genbiltzala, ohartzen nintzen lurralde haiek oso ezberdinak zirela. Ez zen hemengo berderik ikusten. Zezenak bai eta meloiak. Trenaren bidetik txori aldrak ikusten ziren. Horrela, iluntzerako gutxi falta zenean, gelditu egin zen trena eta berriro ez zela martxan jartzen ohartuta, aurrean lur laua eta 200 metrotara txabola bat ikusita, hiru edo lauri bururatu zitzaigun

trenetik salto egitea eta txabola bisitatzea. Ez dut gogoan aterik bazuen ala ez. Gogoan dut, os-tera, piku-pasaz betetako zakuak zeudela. Hain handiak izanda zakuak, pisu handia hartzen zuten. Sendoenaren bizkarrean zaku bat hartu eta atzetik besteok lagunduta, bagoira eraman genuen. Berehala sartu zitzaidan hori egin izanaren damua, nik ez nuelako inoiz horrelakoetan parte hartu, baina egindakoa egina zegoen eta orain berandu da pikuen jabeari barkazioa eskatzeko. Ez dakit zenbat piku jango nituen; gehiegi, ziurrenik, baina gogoan dut gauerdi aldera ezin nuela piku haiek eragindako egarria jasan eta trenaren geldialdi batean iluntasun osoan trenetik salto egin eta nire urontziarekin joan nintzen trenaren makinistengana. Baporezko makina zen, ikatzez zebilena. Urez bete zidaten ontzia. Hurrengo egunean pikuak bagoiko guztien artean banatu genituen. Treneko bidaia hori bukatu eta gero ere luzaro iraun zuten piku horiek, bakoitzean batzuk janez eta beste egun batzuetan gosea berdintzeko aukera eman ziguten.


1939ko martxoaren 29a izango zen; pikuen historia izan eta bi egunera. Madrilera heldu ginen Lleidatik irten eta bi astera; frankistek Madril hartu eta hurrengo egunean, hain zuzen. Madrileko ingurura iristean etxe guztiak apurtuta ikustean hunkituta geratu nintzen. Zutik zeuden etxeak ere, balek eragindako zuloz eta lubakiak bata bestetik hain hurbil. Bidearen bi hegaletan zeuden. Horrela heldu ginen Madrileko Embajadores kalera. Eskola bat zen, burdinazko hesiz kanpotik itxia eta material berekoak ziren atea, ohea eta zorua. Onena bidaia izan zen. Berehala hasi ginen lanean, lubakiak estaltzen; gero Castellana ibilbidean lan egitea tokatu zitzaidan zorioneko "Desfile de la Victoria" prestatzeko. Altuera handiko egurrezko zutabeak muntatu ziren. Neurri handikoak Nola esan! Barrutik igogailu bat ibiltzeko modukoak... Kanpotik egurrezko taula handiz estalita. Tribuna handi bat ere egin zen, Franco eta haren lagunentzat, noski; zutabe horietako batean nebilen lanean, altuera handian, eta norbaitek *Joanito!* Deiadar egiten zidala entzun nuen. Behera begiratu eta soldadu bat niri deika zebilela ikusi nuen; jaisten ari nintze-la konturatu nintzen Casto, nire lehengusua zela. Hura poza! Zer besarkada! Lehengusu hori Elgoibarko Aizbizkar baserrian bizi zen, gure zentraletik hurbil. Ez dakit nola aurkitu ninduen; ziur nago esango zidala baina ez naiz gogoratzen. Gogoan dudana da obraren arduraduna zen ofizial militarri hurrengo eguna elkarrekin pasatzeko baimena eskatu geniola, bi urtez elkar ikusi gabe geundela eta. Lortu genuen baimen hori baina ez dut gogoan nondik ibili ginen. Elkarrekin bazkaldu genuen eta azkenean egin genuenaz oso ondo gogoratzen naiz. Gaua zen, ez dakit zer ordu. Taberna bateko mostradorean besoak jarrita nengoen eta eskuin aldean nire lehengusua; ezkerretara zuriz jantzitako pertsona bat. Beltz erraldoi bat zen. Gorantz begiratu nuen haren aurpegia ikusteko eta berak "nola zaude?" galdetu balit bezala begiratzen zidan. Mozkortuta zegoen. Ia ezin zituen begiak ireki ere. Nano bat nintzen haren ondoan. Beldurra ematen zidan haren begiradak, nahiz eta mozkortuta zegoela ikusi. Berehala abiatu ginen tabernatik kanpora, ni aurretik eta lehengusua nire atzetik. Ni bizkor eta estropezuka ahalik azkarren, gorputza aurrera botata. Kale estu bat pasatu genuen eta parean beste ate bat zegoen irekita; beste taberna bat zen eta han gelditu nintzen nire bularra mostradorearen aurrean neukala eta gero nire lehengusuari sorbaldatik helduta iritsi ginen Embajadoresko gure eskola kuartelera eta hara sartu ginen beste arazorik gabe eta lurrean etzan ginen lo egiteko. Lehengusua, goizean jaiki eta berehala joan zen. Nik neure artean esaten nuen: nola iritsi ginen, nola sartu ginen inork konturik eskatu gabe...?.

Gertaera horien ondoren, nire mozkorraldiaz gogoratu eta esaten nuen neure artean zer esan-go zuen Santoñan nire portaera irakurri zuen militar hark ikusi izan banindu. Ia mozkortzen nintzen galdetu zidan eta nik ezetz erantzun. Gezurtia nintzela esango zuen baina egun hartara arte egia zen eta egia da hura izan zela nire lehen eta azken mozkorraldia.

Hurrengo oroitzapena Alto de los Leones-era eraman gintuztenekoa da. Mendi lepo horretan harrizko bi lehoi zeudela uste dut eta taberna bat. Uste dut hiru hilabete inguru egon ginela han, gutxienez, eta gain hartatik hasita errepide-pista bat egin genuen piku eta palaz mendiaren gailurreraino. Bidean porlanezko gurutze-pausoak- hala deitzen zituztela uste dut- egin genituen eta gailurrean gurutze oso handia. Esan zigutenez, gailur hartan hildako falangeko zenturia baten omenez egin zuten eta obra amaitu zenean meza eman zuten gailur hartan, gurutze handiaren oinetan. Gu ere hantxe ginen denok meza horretan.

Leku edo gailur hori da *Batallón de trabajadores*-en nik egindako ibilbideaz gogoratzen dudana azkena. Gogoan dut kartutxo pila handia zegoela frontea egondako mendi hartan eta emakumeak etorri ohi ziren haiek jasotzera; denetarik zegoen, erabiliak eta erabili gabeak. Azken hauei bala eta polbora kentzen zieten eta horrela latoizko txatarra eramateko zakuetan eramaten zituzten. Han baziren lubakiak, normala denez baita egurrezko taulaz egindako txabolatxoak ere. Jakinminenez, txabola haietako batera sartzea bururatu zitzaidan. Ez nuen barruan minutu bat ere egingo baina gogoan dut atera nintzenezan zorri txikiz beteta irten nintzela. Sinesgaitza hain denbora gutxian nire prakak zorritz josita, beltzak zirela ematen zuela. Nire artean pentsatu nuen..." Zer egingo dut? Nola kendu zorri hauek?" Laster asmatu nuen. Alkandora erantzi eta astindu egin nuen, denak bota arte. Gauza bera beste arrokekin, biluzik geratu arte. Horrela libratu nintzen. Alto de los Leones hartako beste akordu bat da domeketan jai izaten genuela eta herrira jaisteko askatasuna genuela. Uste dut San Rafael zela eta Sorian zegoela.

Hainbeste urte pasatu eta gero, oraindik pentsatzen dut pista hura eta gurutze haiek han egongo ote diren. *Batallón de trabajadores*-en 2 urte, 2 hilabete eta 16 egunetan han egon nintzela froga dezaketen seinala bakarrak izango lirateke²³.



Juan Alberdiren espainiar armadako kartilla militarra.

²³ Juan Casto Alberdiren familiak Elgoibar1936ri utzitako dokumentua.

Los datos de esta Cartilla son los que figuran en el expediente personal del interesado

San Sebastián 1949

El Comte Jefe del C. N. R.

[Handwritten signature]

CARTILLA MILITAR NÚM. A. 304.160

de Juan Albi Aguirre y de María, que nació en Elgoibar, partido judicial de Elgoibar, provincia de Gipuzkoa, el día de 17 de 1912, domiciliado en la fecha del alistamiento en Elgoibar, provincia de Gipuzkoa, estado otro.
Su religión C. N. R., estatura 1.70 metros; profesión u oficio trabajador.
¿Sabe escribir? Si Ingresó en Caja el día 17 de junio de 1937 con la clasificación de (1)

Se entregó esta cartilla al interesado el día de la fecha, con las formalidades de los artículos 223, 224 y 225 del Reglamento.

Biba, a 15 de septiembre de 1949



(2) El Alcalde
[Handwritten signature]

- (1) La que corresponda según el Reglamento.
- (2) Alcalde o Cónsul que entrega la cartilla.

IMPRESIONES DIGITALES DE LA MANO DERECHA

MENQUE	
ANULAR	
CORAZÓN	
ÍNDICE	
PULGAR	

La impresión digital se hará en la forma que preceptúa el artículo 228 del Reglamento.

RECLUTAS EN CAJA

PARA LOS QUE TENGAN CONCEDIDA PRORROGA DE 1.ª CLASE

Sufrió las revisiones reglamentarias ante la Junta de Clasificación y Revisión de Gipuzkoa en los años de 1930 y 1931, confirmándose su clasificación provisional en la de 1.ª, siendo definitivamente clasificado 1.ª en la del año 1930.

El Jefe de la Caja,

PARA LOS QUE TENGAN CONCEDIDA PRORROGA DE 2.ª CLASE

